

K...eta
Kitto!

2016-IV-29

971 zkia.

**Argazkiak, gure
maiatzeko lore**

EUKi
ASEGURUAK

**AURREZTU ZURE ASEGURUAN
GALDETU GURE ESKAINTZARI BURUZ!**



AUTO ASEGURUA
MOTORRA EDO FURGONETA
... BAITA QUAD-A,
AUTOKARABANA, KAMIOIA,
BURU TRAKTOREA,
AUTOBUSA, ATOIAK...

**AUTO
ASEGURU
ESKAITZA**

ORBEA HAURRESKOLA



Bittor Sarasketa, 11 Tel. 943 20 03 84
orbea.eibar@haurrekolak.eus



Matrikulazioa: *maiatzaren*
2tik 11ra

Nahi bezain urrun
iristeko aukera
www.aldatze.org

AURREMATRIKULA



ALDATZE

Colegio Santa María
de la Providencia

Aldatze Kalea, 5 - 20600 EIBAR
Tel.: 943 70 11 50 - Fax: 943 70 13 04
aldatze@aldatze.org



INTERNATIONAL DUAL DEGREE PROGRAM

aldatze
hur-eskola

aldatze
batxilergoa



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Jose Luis Gorostegi, Silbia
Hernandez, Uxue Igarza
eta Haizea Arizaga.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Leire Iturbe eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:
Oskar Gaskon

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.050 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

eskutitzak

Aniaiz Libre!

Eibarko Libreko lantaldetik Aniaiz Ariznabarreta 1980an jaiotako gazte eibartarraren kasua hurbildu nahi dizuegu. Bere kasua espainiar estatuaren jarreraren beste ondorio bat da eta, 2010ean izandako sarekada polizial batean, beste zortzi gazterekin batera atxilo izandako EKINen zuzendaritza osatzea leporatuta.

Atxiloketa arrazoi politikoengatik izatea larria dela uste badugu ere, are larriagoa iruditzen zaigu gazte hauek izandako tratua. Atxiloketaren momentutik ez ziren estatu demokratiko batek bete behar omen dituen eskubideak bermatu, ongi armatutako hamarnaka poliziak euren etxeak asaltatu baitzituzten gauerdian (Europako estatu askotan debekatuta dago praktika hori). Baina momentu hartatik aurrera hasi zen, polizien hitzetan, euren infernua: tortura latzak jasan zituzten 5 eguneko inkomunikazio epea.

Gaur egun, tortura horiei esker lortutako aitorzak erabiliko dituzte gazteen aurka maiatzaren 17an hasiko den epaiketan, horregatik salatu

nahi dugu salbuespeneko politikak eskubide zibil eta politikoen aurkakoak direla (antolatzeke, askatasunean adierazteko edo tratu duina jasotzeko adibidez), eta euskal herritarren biziek axola digutela!

Libreko lantaldetik egoera honi erantzuna eman nahi diogu eta azaldutakoa salatzeaz gain, Eibarko herritarren elkartasuna nahi dugu. Animatu maitezaren 1ean Untzagan ipiniko dugun "photo-call" ean agertzera edota atera ezazue zuen lagun, kirol talde edo lankideekin argazkia!

Azkenik, prozesu judizial guztiek dituzten kostuei aurre egiteko, denon ekarpen ekonomikoa ere beharrezkoa da. Taberna, denda eta komertzioen artean "Libre Laguntzaile" kanpaina abiatu dugu eta arrakasta handia izan du. Hemendik, parte hartu dutenei eskerrak eman nahi dizkiegu eta denoi animatu 20955035009115786208 kontu korrontean zuen ekarpen txoa egitera!

#BasqueLivesMatter
Eibarko Libre Lantaldea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

LAKAR.- Latz. "Gain lakarra laga detsa arotzak mahai honi".

LAKATZ/LOKOTZ.- Gaztaineduk eukitzen duten arantzaz betetako oskola. "Gaztaiña-lakatza baiño latzagua".

astean esanak

"Etiketa politikoa kenduta mugimendua are gehiago politizatzen dugulakoan nago. Horixe da hegemonia, zurea denek naturalizatzen hartzea. Hori hala, Gure Esku dagok malguagoa izan beharko luke. Joera handiegia daukagu herri guztietan eskema berbera errepikatzen. Nahi ala ez, ezker abertzaleko eta EAJko jendea iri egiten zaio keinu. Zer da helburua, ordea, abertzaleak batzea ala abertzaleak ez direnak erakartzea? Nor konbentzitu nahi dugu, konbentzitu daudenak ala ez daudenak?"

(ANDONI OLARIAGA, FILOSOFUA)

"Gaztetxoa nintzanean ez zegoen lanik. Gaztea nintzanean ere ez. Orain bezala. Birmoldaketa industrial deitu zutena desindustrializazio hutsa izan zen. Gure haragitan sufritu genuen. Hainbatek Londresko bidea hartu zuten, bertan lana zegoelako eta, bide batez, ingelesa ikasteko. Hara joandako asko beltzean ari ziren, ilegal, paperik gabe. Ez da historiaurrea, orain 30 urte ingurukoa. Gure bizilagun asko ibili ziren ilegal European, laguntza soziala kobratzen. Eta ahaztu egin zaigu. Ahaztu egin zaie oraingo foru aldundiko kideei AGI kendu dutenean. Jarraituko dugu Lesbosko errefuxiatuendako katiuskak jasotzen"

(LEIRE NARBAIZA, ZUTABEGILEA)

"Alemanian, Austrian eta Suitzan hondakinen %80 birziklatzen dute. Eta dituzten programekin %85, %90 eta %95era doaz. Horregatik, ez da gauza bera %5 erraustea edo %60, Diputazioaren proiektuak dioen moduan. 2025erako %65 birziklatzera derrigortuko gaituzte: zaborraren bi heren. Gipuzkoan %42 birziklatzen dugu, erraz %80ra hel gintezkeenean: hemengo udalerrri batzuk eta Europako erregio batzuk lortu dute. Gero eta hondakin gutxiagorekin erraustegia egiten baduzu, zorretan sartuko zara. Erraustea birziklatzearen aurka doa, makina elikatu behar duzulako"

(ROBERTO BERMEJO, EHUko EKONOMIA IRAKASLEA)



UNAI ARTETXE

Leihoak

Alboan ditut Ixabel, Lourdes, Anttoni eta Puri marmarrian, arratsaldero bezala, kartajokoan. Aldamenetik pasa da Crescencio, lagun bananduezina bihurtu zaion taka-takarekin, tarteka bidean azaltzen zaion aulkiren batekin liskarrean, baina beti ere aurrera pixkanaka pixkanaka bidea egiten.

Ainarak komunera lagundu du Pedro. Aurten 91 urte beteko dituen gizona da, handia bezain luzea.

Gurpildun aulkitik altxatzeko, ordea, estututa beste erizain bati laguntza eskatu behar izan dio.

Telebistaren aurrean daude besteak.

Gustura nago ni, goxo goxo eserita, leihotik begira, umeak parkean jolasten nola ari diren ikusten. Orain ateri dago, baina ez dut uste luzaroan eutsiko dionik.

Ziurrenik laster hasiko dira ume hoi guztien gurasoak alde batetik bestera korrika, euritakoa eskuan.

Biolinak, tubak, tanborrak eta saxoa dantzan direla azadu zaizkit birlobak.

Txikiari eskua gerturatu eta segituan bere hatzamar txikiak nirea inguratu du. Barre txikia ere egin dit, aurrean duen agure hori zein den jakingo balu bezala.

Txikiarekin liluratuta nagoela aprobetxatu du zaharrenak aulkira igotzeko, burutik txapela kendu eta "aitxitxa, aitxitxa" garrasi eginez nire harreta deitu nahian.

Hamar bat segunduko tarte horregatik bakarrik merezi du borrokan jarraitzeak.

Txikiaren gardentasuna eta handienaren energia neure egiten ditudalako. Horregatik bakarrik bada ere merezi du aste osoa leihora begira pasatzeak, biolin, tuba, tanbor eta saxoekin dantzan, bihurritxo pare hoi bisita hurbilago egongo da eta.

BOJ Olañetaren donaziñua Armerixandako

Armerixa Eskolako Eskuadra Zaharra Museuak bere fondoa haunditu dau, astelehen goizian donaziñuan hartu dittuan BOJ Olañetako piezak hartziarekin batera. Santiago Olañeta BOJ Olañeta enpresako gerentziak bere irakaslia izan zan eta gaur egunian Armerixako zuzendarixa dan Jose Luis Novoari emon zetsazen 1914. urtian egindako piezak, enpresan gordetaken artian zaharrenak: Manuel Barrenetxeak Armerixa Eskolako armarrixa estanpatzeko

punzoia eta horrekin egindako insignia eta, hórrekin batera, aittatutako urte horretan Armerixa Eskoliaren inauguraziñorako egin zan industriari buruzko erakusketiaren domiña oroigarrixa. No-voak eskerrak emon zetsazen, "hiru belau-nalditan horren ondo gordetakuak Eskoliari emotiagaittik".



Silbia Hernandez

asteko
64.700
datua

arretatik gora egin zittuen Pegoran 2015ian. Hórretatik 58.353 aurrez-aurre egin ziran; telefono bidezko 5.052 argibide-eskaera erantzun eta 1.356 tramite egin zittuen eta 82.049 jarduketatik 20.000 baiño gehixago errolda-ziurtagirixak emoteko izan ziran.

**Nepalera bidian**

Aurrek domekan hasi eban Santurtzitik Nepalera, 12.000 kilometrotik gorako bidaia Gergori Aiarzaguena "Goyo" abenturazaliak eta, lehen geldiunia Eibarren egin ebalu aprobetxatuta, ongietorri berua egin zetsen Eibarren bizi diran nepaldarrak, bestiak beste euren herrialdeko dantza eta musikia eskinduta.

Biajia etapa bittan egingo dau: lehelengua, Santurtzitik Ankara (Turkia) eta, bigarrena, handik Nepalera. Diñuanez, "asmua abuztuan Ankanan egotia eta datorren urteko otsaillian Ankaratik Nepalera zatixa egittia da". Bizikletan eta bakarrik ibilliko da: "Oso modu xumean bidaiatuko dot. Kanpin dendan egingo dot lo eta jatekua nik preparauko dot. Dinamo bat jarri detsat bizikletari, nere gailluendako energixia neuk sortzeko". Goyo oin dala sei urte Nepalera trekking egittera juan zan, baiña gero hillebete pasau eban umezurtz etxe batian klasiak emoten eta,

umezurtz etxia itxi ebela eta, hórre-ri laguntzeko bidiak billatzen hasi eta holan sortu zan espediziñuaren ideia: Madrilgo Balabalika Pokhara gobernuz kanpoko erakundiak hiru urte daroiaz Nepalen biharrian, Gorkha izeneko herrixan umezurtz etxe batian, eta eskola bat berreraikitzen eta eskola egitteko dirua batzeko ekin detsa bidaiari.

Maialen Belaustegi



Museua ezagutzeko hamaika aukera

Armagintzaren Museoko Hez-kuntza saillak hainbat jarduera, taillar eta materixal didaktiko sortu ditu, "museora bisitan doiazeneri kalidatezko esperientzia aberasgarria eskintzeko asmuarekin". Aldez aurretik eskatuta ikasle, talde eta partikularrendako eskintzen dituden bisita gidatuekin batera, publiko orokorrerendako pentsauta dagan "Museoa kalean" izenekuak ondare-industrialia ezagutzeko ibilbidia eskintzen dau; "Ze nolako biharra, emakumeena!" ordu eta erdiko tailarra da, LH. 2. zikloko ikasliendako eta famelixendako bereziki preparautakua; "Eibarko Berripapera" DBH-ko ikasliendako eta famelixendako bisita-tailarra da, museuan egittekua eta ordubete eta 20 miñutuko iraupena dauka; iraupen eta planteamendu berbera dakaz "Museoa pausoz pauso" izenekuak, baiña kasu honetan eskintza LH-ko ikaslieri eta famelixeri bideratu dabe; "Made in Eibar" eta "Altxorraren bila" 8-10 urte bittarteko ikas-

KAXAGINA,
¿ZER OTE DA HORJ?


Inxtaurondoko ohol motz eta sendoekin lan egiten duen arotz espezializatua da.

Armaginek egur zati aproposa aukeratuko du forma emateko, eskopelaren baskulak eta kañoiak dohuko dituz onoren.

Kaxagin edo Kaxaginitza izena hartzen duen arrotsu hauek, Berolen esku dago ama erabat amaltua eta ondo lortu lagatzea.

Kaxaginek armaginek taileretan egin izan duen lan normaien baina badira lan hori basteian egin izan duten basteitarak ere.

Aniztikoko gremio hau Eibartik kostaldara bitartean kokatua zegoen gehienbat, Ermuva eta Mendorak beretiki.



Martinek kaxaginarean aldamenetan kaxten du. Egurrezko bankada luze baten gainean dauka arotzaren lanerako tresnak. Lehoiek kalera ematen duen, lanerako argitasun handia behar dutelako.

Amantola lotu eta bere masuarengana itzultzen da. Txukun pilaufutako oholak, indagai eta diloz beletako opati ugari eta lehortzen ari diren kaxak dituzte inguruan, edozein lekutan.

Eskopelaren kaxa inxtaurondoz eginda dago. Beltzidirik erabiliz izan da inxtaurondoa kaxak egiteko, material beretik ezin izan diote tokia kendu.

Mendeetan zehar landatu izan dira inxtaurondak gure eskualdean. Orain hasi dira Ekialdeko Europatik egur mota desberdinak heltzen.

liendako sortutako tailarrak dira (ordu eta erdi); eta, eskintza biribiltzeko, "Martinek armagin izan nahi du" argitalpena interneten, armia-eibar.eus helbidian eskuragarri dago, nahi dabenak deskargau eta armagiñen biharra zelakua dan ezagutzeko aukeria izan deitan.

Bestalde, maiatzaren 18xan 38. Museuen Nazioarteko Eguna ospatuko da eta horren harira ate irekixen jardunaldixak egingo ditue maiatzaren 18tik 22ra bittartian, nahi dabenak museua musutruk ikustera juateko.

Primerako Gin Tonic-ak barixakuko finalian

Aurreko barixakuan jokatu zan lehen Gin Tonic lehiaketako finala Untzagan. ...eta kitto! Euskara Elkarteak tabernetan euskeriaren erabilleria areagotzeko antolatzen daben Euskeraz Primeran! kanpaiñarekin bat eginda daguazen 85 tabernerri eskindu jakuen lehiaketan parte hartzeko aukeria eta hórretatik 20 animau ziran nor baiño nor jardutera. Apirillaren 15etik 17ra bittartian jokatu zan lehen fasean bezeruak tabernetan Gin Tonic-ak dastatu eta gero bozkatzeko aukeria euki eben, horretarako tabernetan ipiñi ziran bozkatzeko orrixak eta kutxak erabillitta. Botua emon eben guztien artian

asteburu pasa bat zozketatu eben antolatzaiillak eta premixua Patricia Feijoori egokitu jakon. Egurdixia lagun, jendetza alkar-tu zan Amesti, Ametsa eta Txoko tabernerri arteko finalak erakarritta. Oihan Vegak gidatutako ekitaldixan, finalista bakotxak 10 miñutu euki zittuan bi gin tonic preparatzeko eta Ivan Feijoo eta Oscar Pardo epaimahaidieri probatzen emoteko eta, eurak erabagitta, irabazlia Ametsako Guada izan zan (300 euro eta plakia jaso zittuan). Bigarren sailkatua Amañako Amesti tabernako Emilio izan zan eta hirugarrena, barriz, Txokoko Lurdes.

Maialen Belaustegi



autuan



4G KONEXIÑUA

Gure herrixak interneterako konexiño mugikor azkarraguak eta estaldura hobia eukiko dittu 4G barrixari esker. Izan be, telefonia mugikorreko enpresak 4G zerbitzuak eskintzen hasiko dira, 800 MHz-eko bandan. "Llega800" dalakuak bermatuko dau 4G zerbitzu horren eta TDT-aren bateragarrittasuna. Zerbitzuen kudeaketia egiteko dohaiñeko telefono zenbakixa (900 833 999) eta webgunia (www.llega800.es) ipiñi dittue eskuragarri.

S. ANDRES KALEKOAK

San Andres kalia jaixotakuak bazkarixa egingo dabe maiatzaren 7xan eta juan nahi dabenak 30 euro sartu biharko dittu Kutxabanken, 2095 5035 01 9116008881 kontu korrontian.

UDALAREN INKESTA

Udalaren eta herritarren arteko komunikaziñua hobetzeko asmuarekin inkesta preparau dabe. Inkesta anonimua eta konfidentziala da eta nahi dabenak udalaren webgunian (eibar.eus), Pegoran, Udal Liburutegixan eta Armagintzaren Museuan dauka horretarako aukeria.



Silbia Hernandez

Ekuadorren kaltetu diranendako laguntza

Eibarren bizi diran ekuatoriarrak Untzagan mahaixa ipiñi eben aurreko barixakuan, Richter eskalan 7'8-ko indarra izan eban apirilaren 16ko lurrikarak Ekuadorreko kostaldian eragindako kaltieri aurre egiteko laguntasuna batzeko asmuarekin. Esandakuen arabera, "egoeria benetan larria da. Gauzarik premiñazkuenak, ura, janarixa... denetarik bihar dabe. Gaiñera ume askok gurasuak galdu dittuela kontau deskue". Gauzak hola, agundu nahi dabenak diru emo-

teko kontua zabaldu dabe BBVA-n: 01822410430201603432.

Eibarko Udalak, bestalde, 2.000 euro emon ditu "lurrikararen ondorixuak leuntzen laguntzeko". Diru-laguntza Eibar-Ermua Gurutze Gorriak bideratuko dau. Horrelako larrialdi egoetarako udal aurrekontuan jasota dagan "Hondamendi naturaletarako diru-emaitzak" partida, bestalde, aurtengo aurrekontuan 6.000 eurotik 10.000 eurora igo da, Irabazi taldiak aurkeztu eban zuzenketari esker.



T. Etxebarria 07:45etik aurrera zabalik

Udalbatzak aste honetan hartutako erabagixaren arabera, trafikua eraberritzea baiño goizago, 07:45ian zabalduko dabe Toribio Etxebarria kalia asteleheneetik zapatuta. Aldaketia egiteko proposamena EAJ alderdixak egin eban, goizian goiz anbulatorixuan odola etartzera doiazeneri automobilla aparkatzeko aukeria emoteko asmuarekin.

Gerrako Interpretaziño Zentrua ezagutarazteko ekimenak

Udalak proiektu barrixak abiarazi ditu iaz Arraten zabaldu eben Gerra Zibilleko Eibarko Frontearen Interpretaziño Zentrua eta horren inguruko eskintza ezagutarazteko asmoz. Horren barri emoteko aurreko barixakuan egindako prentsaurrekuan azaldu eban, proiektu hórretxen artian inportantiena Interpretaziño Zentruari eta horren inguruko ibilaldixeri eskinduta sortu daben gida edo aplikaziñua da.

Horren garapenez arduratu dan Alambre Estudio-ko Eneko Uriartek azaldu eban, "mugikor zein tabletetan erabiltzeko aplikaziñuan audio-gida, bi-deuak, testuak, argazkixak, mapa eta bisitarixendako argibidiak bildu dittugu, bestiak beste". App Store-n eta Google Play-en eskuratu leike, duan, eta behin deskargauta internet konexiño barik be erabili leike. Horrekin batera, Unzaga Plaza hotelian zein Armagintzaren Museuan



ikusgai ipintzeko panel edo "roll-up" barrixak egin dittue, jendiarrendako interesa euki leikian informaziñuarekin: "Turisteri ezagutaraztia da asmua eta, horre-

tarako, bertara zelan ailegau leikian, ordutegixak eta bestelako informaziño praktikua eskinduko dabe". Informaziño horrekin esku-txartelak be etara dittue.

Herri Urratsera juateko autobusak

Senperen maiatzaren 8xan egingo dan 33. Herri Urratsera juateko autobusak antolatu dittue, urtero moduan, J.A. Mogel Ikastolako Gurasuen Elkartiak eta ...eta kitto! Euskara Elkartiak. Autobusak goizeko 08.30xean urtengo dau Ego-Gaiñetik eta Senperetik bueltia, barriz, arratsaldeko 19:00etan egingo da. Txartelak ...eta kitto!-n erosi leikez.

Bestalde, Euskal Herriko Ikastolen Federaziñuak antolatzen dittuen bost jaixak, Herri Urrats, Ibilaldia, Araba Euskaraz, Kilometroak eta Nafarroa Oiñez, Eroski Bidaiek-ek babestuko dittuala emon dabe aditzera. Argazkixan Koldo Tellitu Federaziñoko presidentia eta Sergio Gomez Eroski Bidaiek-eko Merkatal eta Marketing zuzendarixa dagoz, astelehenian horretarako hitzarmena siñatzeko ekitaldixan.




Koldo Tellitu eta Sergio Gomez hitzarmena siñatu ondoren.

Ziñegotzi barrixak kargua hartu dabe

Astelehenian egindako udalbatzian hartu eben kargua aurrerantzian ziñegotzi izango diran Jon Iraolak (PSE-EE) eta M^a Jesus Agirrek (Irabazi). Martxuan dimisiñua aurkeztu eban Eneko Anduezaren tokixa beteko dau Iraolak: 40 urte dakaz, elikagaixen arloko zuzendaritzan aditua da eta Eroski Taldiarendako dihardu biharian. Eta M^a Jesus Agirrek, barriz, Itoitz Garcia-Anton ordezkatuko dau Irabaziko ziñegotzi karguan.



Gurasoak Martxan saiaua martitzenian



Gurasoak martxan

Otsaila eta martxuan egindako lau hitzaldixak sortu eben interesa ikusita, udaleko Gizartekin-tza sailak Gurasoak Martxan egitasuari lotutako beste bi saio antolatu ditu. Lehelengua atzo egin zen eta bigarrena, barriz, datorren astian, martitzenian egingo dabe, 18:00etan Portalean: Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako umien gurasuendako pentsautako antolatutako hitzaldixan haurtzarorako jokabide egokixak azalduko ditue eta, horrekin batera, umien heziketarako lagungarrixak izan leikiazan aholkuak emongo detsez entzutera doaizen gurasueri. "Gurasoak Martxan" egitas-mua herriko ikastetxietako Guraso Alkartiekin eta Baikara, Gipuzkoako Gurasuen Federaziñuarekin alkarlanian antolatzen dabe. Hitzaldixak duan dira, baiña juateko interesa daken gurasuak alde aurretik izena emon bihar-ko dabe, seme-alaben ikastetxian.



Mecanicas Mallabi ixtiaren kontra

Aurreko zapatuan manifestaziñua egin eben Alfa taldeko Mecanicas Mallabiko bihargiñak, taillarria ixteko eta 81 bihargiñak kaleratzeko erabagixaren kontra protestatzeko. LAB-eko ordezkarixen berbetan, "zuzendaritzak aurreko astelehenian emon zetsen aditzera enpresa komitekueri orduan egunian aillegau zala epaitegitik taillararen likidaziñorako autua. Azpijokua erabillita, iñori ezer esan barik sartu eben epaitegixan likidaziño eskaeria".

ANTONIO BARRIO GUEDE

III. URTEURRENA: 2013-IV-26



"3 urte badira ere laga gintuzula, gure bihotzetan zaitugu egunero"



EIBARBUS-eko gerentzia eta lankide guztien partez

Faxisten bonbak herrixa suntsitu ebenekua

Astelehenian 79 urte, 1937ko apirilaren 25ian bota zittuen lehen bonbak Eibar gainian eta faxisten bixamoneko bonbardakietatik herrixa txiki-txiki eginda laga eben. Bomba eta sutik librau zan bakarria San Andres elizia izan zan. Italiako armadako "flechas negras" izeneko zazpi abioietatik 21 kiloko 100 bomba eta 50 kiloko 103 bomba bota zittuen, 1.500 metroko altueratik. Bonbak herrixa suntsitziaz gain, oindiok herri barruan eguzazaren artian ehundaka lagun zauritu eta hil zittuen. Ondoren Mola generalaren tropak Eibar hartu eben. Gertatutakuaren ondorioz herrixa atzera be jaso bihar izan eben eta jatorrizko itxuria goititik behera kanbi-xau zan. 1940ko urrixaren 8xan, "Regiones Devastadas" dalakuaren Zuzendaritza Nagusixak urbanizaziño-proiektua onartu eban eta holan hasi ziran Eibar berreraikitzeke biharrak. Bestiak beste, orduan erabagi eben Ego errekia estaltzia, eraikitzeke toki gehixago lortzeke.

Hori guztia irudixetan jasotzen daben Eibarko bonbardaketari buruzko erakusketia domekara arte ikusi leike (egun osuan, tabernatik sartuta) Arrate Kultur Elkarteak Topalekuan ikusgai dakan erakusketan. Indalezio Ojangurenen eta beste batzuren argazkixak bonbak bota eta gero herrixa zelan geratu zan erakusten dabe. Orduan sasoiari pasautakua zelan biziko eben imajinatzeke orduan erretratuak oso lagungarrixak dira, zalantza barik, baiña oindiok lagungarrixaguak dira hori guztiori bizi izan ebeneri zer kontatzen daben entzutia, eta martitzenian horretarako aukera zoragarrixa eskindu zeskuen **Julia Lanas eta Kontxa Laspiurrek**, Josu Ibartgutxik gidatuta Topalekuan emon eben hitzaldixan.

Bonbak zelan jausi ziran kontatzen hasi baiño lehen, pixka bat lehenago, 1931ko apirilaren 14an Errepublikia aldarrikatzia zelan gogoratzen eben kontau eben orduan 12 eta 7 urteko "txabalitak" ziranak. Kontxaren berbetan, "aittak betiko moduan periodikotara bialdu ninduan eta, berari emoterakuan, aittak 'Koño, ordua zan republikiak triunfatzeke!' esan ebalak akordatzen naiz". Julia be akordatzen da jende guztia Untzagan zelan batu zan, "eta Bilbotik goizeke zazpiretako trena aillegatziari eta han Errepublikian aldarrikapenaren barri ez zekela esaterakuan jendia urduritzen hasi zala eta gure amak aittari maletia prepa-
rau zetsan, ihes egitteke".



Jendetza batu zan Topalekuan martitzenian, andra bixak Eibarko bonbardakietia zelan gogoratzen eben entzuteko. Gustora entzun zittuen Errepublikia, gerra eta bestelakuen inguruan kontautakuak.

Silbia Hernandez

Errepublikia eta Oktubreko reboluziñua

Euren berbetan, "Errepublikia ekarri genduan, bai, baiña denpora gitxirako". Handik denpora gitxira beste gertakizun historiko baten lekuko izatia tokau jakuen bixeri, Eibarren beste toki batzuetan baiño garrantzi haundixagua izan eban 1934ko oktubreko reboluziñua aillegau zan eta. Horren eragiñez herrixan "hildakoren bat edo beste" egon zala akordatzen dira, eta Juliak "borrokan zebizen anai bixak eta koñatua harrapau eta kuartelian egurtu" zittuela kontau eban. Ibartgutxik "Eta 1936xian zer?" galdetziari, Juliak pentsau barik bota eban, "ba 36xian barriro be eskopetekin urten eben". Halanda be, azkenian frankistak sartia lortu eben eta, Juliaren berbetan, "eurekin batera aillegau zana ez genduan geuk ekarri, hori etorri egin zan".

Bonbardaketiaren aurretik Kontxa basarrixan eguan, oporretan, eta aitta billa juan jakon, "zer zatorren ikusitta famelixa guztia alkarrekin egon bihar zala esan zestan". Bonbak bota zittuen bittartian Kontxa koltxoian azpixon sartuta egon zan: "Ugazabak holan egitteke esan zeskun, protegitzeke. Goguan dakat sirenia zelan entzun zan, baiña guk hori zergaittik zan be ez genkigun. Ordube edo pasauko eben

bonbak botatzen eta atzera be sirenia entzun zanian koltxoi azpitik urtetzeko, pasau zala esan zeskuen. Pasau bai, baiña kalera urtetzarakuan dana keia, apurtuta... Maria Angela kalia dendari mordua eguzen eta han harrapau zittuan bonbak: Rupertto pelukeruari hankia moztu zetsazen, beste neska bateri besua...".

Herrixan ezer geratzen ez zala eta, "izara batian arropak batu eta Bilbora juan giñan. Eta han gaozela beste bonbardeo bat tokau zan eta atzera be dana errepikatze-
ra", goguan daka Kontxak.

Eibar inguruko mendixetan eta Intxorta aldiari zazpi hillebetian eustia lortu arren, azkenian hori be jausi zan eta aillegau zanatik ihesi Eibartik kanpora ibilli ziran bixak, Sestao, Neguri, Santanderren... Baiña gauzak pixka bat baretu ziranian atzera be etxera bueltau ziran eta orduan bizitzia tokau jakuena benetan gatxa eta gogorra izan zan: "Prisioneruak Armerixa Eskolan zittuen eta torturatziari egitten zittuen garrixak ez entzuteko motorrak martxan ipintzen zittuen". Gosia, biharriari gogor jardun biharra, etxeak preso eruatia edo, Juliaren aitta moduan, fusilatziari... andra bixak horrekin akordatziari esan eben moduan, "horretxek izan ziran gure propinak".

Aurten ere kalera, beharginen eskubideen alde

Urtero bezala, beste behin ere aldarrikapenak egiteko eguna izango da Maiatzaren Lehenena. Sindikatuak eta beste eragileak kalera irtengo dira domekan, kapitalismotik aldentzen diren bestelako eredu ekonomikoak eskatzeko. Oro har, beharginen eskubideak eta lan baldintza duinak izango dira aldarrikapen nagusiak, moduren batean beharginak duintasunez bizi ahal izatea ziurtatzeko. Krisi ekonomikoak eta beste faktore batzuk eraginda, langileen esplotazioa, eskulan merkea, eskubide murrizketa... ohiko bilakatu dira eta, horien kontra urte osoan eta egunero borrokatu behar bada ere, Maiatzaren Lehenena bereziki horretarako eguna izango da.



Astelehen arratsaldean Untzagan egingako agerraldian, LAB sindikatuak Maiaz-

tzaren Lehenaren harira antolatutako ekitaldien berri eman zuen. Aurten eskualdeka egingo dira ekimenak, "Langileok Martxan, eskuBIDEAK aktiBATUZ!" goiburuari jarraituta. Azken urteotako martxan, Eibarren izango da Maiatzaren Lehenaren inguruko ekitaldi nagusia: Untzaga-tik manifestazioa abiatuko da, 12:00etan, eta amaieran ekitaldi sindikala egingo da. Langileen eguna herri bazkariarekin agur-

tuko dute (txartelak sindikatuaren egoitzetan daude salgai).

ELA sindikatuko kideek, berriz, azken urteetan egingandakoari jarraituko diote aurten ere eta Bilboko Jesusen Bihotzean elkartuko dira, 11:45ean "Gehiago balio dugu" goiburuari jarraituta manifestazioan abiatzeko. Bestalde, eta hamazazpi urte eta gero, Nafarroako hiriburuan batzeko deia egin du ELAK: Iruñean 11:30ean egin dute hitzordua, Gurutze Enparantzan. Eta CCOO eta UGT sindikatuak elkarrekin deitu dituzte mobilizazioak Eskadiko hiru hiriburuetan: 11:30ean Bilbon (Gran Via, Arriaga plaza) eta 12:00etan, berriz, Donostian (Alderdi Ederren) eta Gasteizen (Ama Zuriaren plazan) "Negoziazio kolektiboaren alde, lana eta eskubideak" eskatzeko.

MAIATZAK 1
GEHIAGO BALIO DUGU

MANIFESTAZIOAK

IRUÑEAN PLAZA DE LA CRUZ GURUTZE PLAZA **11:30etan**

BILBON SAGRADO CORAZON JESUSEN BIHOTZA **11:45etan**

ELA EUSKAL SINDIKATUA *mobilizatu!*

Negoziazio kolektiboaren alde
LANA ETA ESKUBIDEAK

1 MAIATZAK 2016

UGT Euskadi

BILBO: Gran Via, Arriaga plaza, 11:30
GASTEIZ: Ama Zuriaren plaza, 12:00
DONOSTIA: Alderdi Eder, 12:00

MODU ERAGINKORREAN MOBILIZATZEN GARA LAN ETA GIZARTE ESKUBIDEAK ERREBINDIKATU, BABESTU ETA HOBETZEKO

no es tu crisis pero son tus derechos
langileok **CCOO** borrokaratu

MANIFESTAZIOA
DONOSTIAN
Alderdi Eder-en, 12.00etan

CCOO euskadiko langile komisioak

maiatzak

MAIATZAK 1

EUSKAL HERRIA CONTRA LA PRECARIEDAD
LANGILEOK MARTXAN
ESKUBIDEAK AKTIBATUZI!

Eskualdeko Manifestazioa Eibarren
12:00etan Untzaga plazatik
Ondoren, Ekitaldia eta Herri Bazkaria (15:00etan)
 Untzagako arkupetan
Txartelak salgai LABeko Eibarko Egoitzan: Bidebarrieta, 1
 943 82 04 89

LAB

2015 urriaren 3an sartu zan indarrarian Euskal Zuzenbide Zibillaren Lege barrixa, ekaiñaren 25ian Eusko Legebiltzarrak EAJ, PSE-EE eta PPren aldeko botuekin onartuta. Nabarmen aldatu dau lege horrek herentzien inguruko araudixa eta, batez be, "askatasunaren eta bardintasunaren alde" jo dau. Testamendu-egilliak irabazten dau askatasunian eta EAEn herrialdeka oiñ arte indarrarian egon diran desbardintasunak bardintze bidian jarriko dira. Horren inguruan argittasuna jasotzeko jo dogu Arantxa Insausti Gipuzkoako Jubilatuen Elkarteko abokatuarengana. Azken aldixan gurian izan da, Untzagako Jubilatuen Etxetik deittuta, testamentuen inguruko galdereri erantzuten eta hainbat zalantzeri erantzuten.



Testamentua: askatasunaz baliatzeko

Ez da Eibarko kasua bakarrik, baiña badirudi emakumiak bakarrik dagozela horretaz arduratuta", diñosku. Bere hitzetan, "hitzaldixetan %85 andrak dira. Matriarkatua bizitzen egongo gara hor be!". Dana da, testamentua egittia asko kostatzen jakula uste dau: ez prezian, horretara ipintzian baiño. "50 euro, ez da askoz gehixago izango. Gaiñera, edozein unetan aldatzeko aukeria daukazu. Komenigarria egittia? Zelan ez? Beste arlo batzuetan lez, dakagun askatasuna erabiltzia beti da komenigarria. Askok esango dabe zertarako bizitzan saltsa-

tan sartu', baiña eurak ez dauazuenian seme-alabak eta ondorengiak izango dira saltsatan sartuko diranak. Erabagixa lasai hartzeko aukeria daganian, iñori ezer esan gabe gaiñera".

Lege barrixa, zibilla izanda be, ez dabela suzesiño edo ondorengotzaren inguruan bakarrik jardungo diño abokatuak: "Hasieria da, zeezer zabalagua ekarriko dabena: banantze edo separaziñuak, matrimonixuaren regulaziño ekonomikua, etb. tratatuko dittu". Ez da kontsentsuatutako legia izan, teknikuak eta praktikuak ez dabelako parte hartu: "Bizkaiko Foru Zuzenbi-

detik hartu dau, batez be, eta Aragoikuaren antza badauka".

Testamenturik ez egittiak legiaren esku lagatzen dau hildakuen herentzia banatzia eta "oso ohikua da hori egokixena ez izatia. Legiak ahaidetasunaren arabera erabagiko dabelako". Eta noiz komeni da testamentua egittia? "Ondasunak dittuzun momentutik. Zergaittik ez 35 urterekin, esaterako? Jendia gehixenbat 50-60 urtiak eginda jauten da notariixuarengana, edo geruago, azken orduan. Trajia zure neurriira egin zeinkenian, zertarako bestieri aukeria emon iskanbilletan sartzeko?", diño Insausti abokatuak.

Ohikuen pertsona bakarrak egittia bada be, "badago mankomunaua egitteko aukeria: ez dira, gaiñera, zertan senar-emaztiak izan bihar; bi anai-arreben artian be egin leikie. Gero, edozein barrittasun sartzeko, jakiñarazi biharko jako bestieri; horrek ez daka iñolako zailtasunik".

Insaustik diño praktikak esango dabela aldaketak onerako diran, baiña aldaketa biharrezkua zala, "batez be azken 40 urtitan zenbat famelixa eredu desbardin sortu diran ikusitta. Horako konfliktuak aztertzeko, gaiñe-

ra, martxan jarraitzen dabe Notariixuaren Kolegixuak, Unibertsitateko irakasliak... Parlamentuko mahairaiño".

Askatasun gehiagorekin

Aurreko legislaiziñuarekin, testamendu-egillia derrigortuta zegan herentziaren bi herenak seme-alaberi emotera, eta hori hirutan banatzen zan: legitimua, guztiendako bardiña zana; hobe-kuntza, batzueri bakarrik emoteko aukeria zeguana; eta hirugarren zatixa zan beste edozeiñi emoteko aukeria zekana testamendu-egilliak. Oin, ostera, seme-alabentzako ziran hórrek bi herenok batera mugatzen dira eta beste bixak libre dittu testatzailliak bere borondatia egitteko.

Lege barrixak seme-alabaren bat ezer barik lagatzeko ahalmena be emoten dau. Horretarako, testamentuan ez izendatziarekin nahikua da. Lehen hori gertatzeko, biharrezkua zan tratu txarrak edo halakorik alegatzia. Baiña aldaketa horrekin batera, badago beste bat, legitimo globala deittutakua, aukeria eskintzen dabena ondorenguendako zati hori emoterakuan seme-alaberi izan biharrian illoberri emoteko, "baitta illobetako bakar bati be".



Testamentua egittiak aukerabidia eskintzen dau famelixakua izanda be hortik kentzia nahi dozuna kendu eta zureztat merezi dabena jartzeko.

Lege barrixak bizikidiaren alde be egitten dau eta, holan, seme-alabak ezin izango dabe bizirik geratu dan gurasua etxetik bota, "batzuetan etxe hori geratzen jakon patrimonixo bakarria darian". Hori bai, eskubide hori galduko dau beste batekin ezkondu-bizitza egitten hasten ez dan bittartian.

Aurreko legian herentzia zuzenbidetik kanpo zeguan, "bat hil arte herentzia ez zalako existitzen eta ez zalako haren inguruan paktatzerik". Oin, baiña, akordixo batera iritsi eta zainduko zaituen seme-alabari edo errain/ suin berari be ordainetan herentzia emoteko aukeria dago.

Testamentu barik, legia

Testamentua egitiaren abantaila da egilliak erabakitzen dabela bere herentziarekin zer egin; bestela, "legiak esaten dabenari jarraitu biharko jako". Batez be, biharrezkuago egitten da seme-alabarik ez badago: "Ezkontidiari, neba-arreberi edo gurasueri lagatzeko aukeria hor dagualako". Lehen gurasuak eskubidia zeken herentziaren erdixa eskuratzeko seme-alabarik ez bazeguan, "baiña oin ez dake inolako eskubiderik". Testamentuarekin be, oin ezkonti-



Arantxa Insaustik hitzaldixa eskindu zeban Untzagako Jubilatuen Etxian.

dia (edo izatezko bikotekidia) gurasuen aurretik dago. Arautegi barrixarekin izatezko bikotiak senar-emaztien eskubide eta betebihar berberak izatera pasatu dira.

Eta herentziak zorrak badittu? Halakuetan be aldaketak izan dira, "modu zuzenaguan erantzuteko egoerari". Lehen, herentzia onartu ezker, zorra sortu zebanaren eta herentzia jasotzen zebanaren patrimonixuak batzen ziran horri erantzuteko. Hori dala-eta, askok ezetz esan bihar izaten zetsan herentziari. Lege barrixarekin herentziaren patrimonixua heltzen dan neurriraiño erantzun biharko da, "jasotzen dabenaren poltsikuan eskurik sartu gabe".

Euskal auzotasun zibilla

Oiñordekotzarekin lotutakuak historixan Euskal Herrixan hainbat lege berezi garatzeko aukeria emon dau. "Ez da hamengo gauzia, beste herrialde batzuetan be bardin izaten da". Eta lege barrixa horrek aldiok gitxitzen saiatu da, "eguzen lau-bost sistema EAE-n bakarrera ekartzeko". Halanda be, Arabako Aiaraldekuak indarrarian jarraituko dau eta han, Nafarruan lez, libre dake nori lagatzen detsen ondaria.

Lege barrixa indarrarian sartu arte Bizkaian bakarrik erabilli zeikian aukeria zabaldu da Gipuzkoara eta Arabara be: ahalordiarren edo alkar poderosoaren figurarena. "Komisario lanak egingo dittu eta, orokorrian, ez-

kontidiari emoten jako ahalmen hori. Berak erabagiko dau, epe baten barruan, ondasunak noiz eta zelan banatu". Ezkontidia babeste aldera, formula hori gero eta erabillagua da.

Euskal auzotasun zibilla lortze bidian aurrera egin bada be, Aiaraldian "oiñordekuak erabagitzeko izango daben askatasunarekin" batera, Gipuzkoan basarrixak herentzian emoteko orduan dagan aparteko ezaugarriari be eutsiko detse: "Basarrixak bakar bati emoteko aukeriak jarraituko dau, esplotaziñuari eusteko. Baiña fabrika batekin ezin zan gauza bera egin; oin bai", diño Insaustik. Bizkaian be badago berezitasunik: tronkalekotasuna. Horrek foru zuzenbidia indarrarian dagan Bizkaiko herritarrek bihartzen dittu, ezinbestian, herentzian jasotako ondasun higieziñak ondorengueri lagatzera.

Bizitza-testamentua

Bizitzaren azken unian lagun-garri izan leikian azken atal hau ez dagokio Zuzenbide Zibillari. "Zuzenbide Administratiboko arluan sartzen da. Gaixuaren azken borondata agertzen dau eta sendagillien esku ipintzen dan dokumentua da, ospitaletako Etika Batzordekuak aztertze".

Bidebarrieta, 5 Tel. 943 201 547

CAPI

LASER DEPILAZIOA 30€

Hanka osoak + Izterondoak 90€

Masajeak



Ipini zaitез sasoi onean
 astero bakarrik
 20 minutu eginez

Powered by **BODY**
Berria!



Gorputz tratamenduak

TEKNIKAK: Kabitazioa / Radiofrequentzia / MINCEUR

Laser lipolitikoa / Presoterapia / Elektroestimulazioa

5 saioko BONOAK / Zona bat: 35 euro saioa



Aurpegi tratamenduak

BETILE LUZAPENAK
GEL ATZAZKALAK
IA BETIRAKO
MANIKURA



- Mikrodermoabrasioa
- Radiofrequentzia (zimurrak)
- Mantxak (BERRIA)

Julen Leturiondo (Eibarko Koro Gaztea):

"Gurea ez da beste koroak bezalakoa"

Julen Leturiondo, hamabost urteko abeslaria, La Salleko ikaslea da, eta orain dela urtebete Koro Gaztean hasi zen abesten. Aurretik Koro Txikian zortzi urtez ibili da, eta Elena Martin izan du zuzendaria urte guzti hauetan. Parte hartuko duen hurrengo kontzertua maiatzaren 25ean izango da, Musika Eskolako ikasturte amaierakoa, Coliseo Antzokian. YouTubeen ere badu kate bat, Second Melody, Andrea Garciarekin batera. Koro Gaztean abesteaz gain musika eskolako rock talde batean ere abesten du, eta gitarra, pianoa eta panderoa jotzen ditu.



Abesteaz gain, gitarra, pianoa eta, azken aldian, panderoa ere jotzen du Julenek.

- Zenbat neska-mutil zarete koro gaztean?

Guztira hamazortzi edo hemeretzi. Orain hiru mutil bakarrik gaude, baina gehiagoren bila ibili gara. Neskak hamalau edo hamabost dira.

- Astean hiru egunetan entsaiatzen duzue. Ez zaizu gogorra egiten hainbeste ordu sartzea?

Gustatzen zaidanez, ez zait gogorra egiten. Gainera Elenak oso atseginak egiten ditu klaseak. Ez dugu pasatzen klase dena abesten. Berba egin ere egiten dugu eta oso giro ona dago.

- Zer abesti mota lantzen dituzue?

Denetik egiten dugu, baina orokorrean bat gaur egungo pop kantak abesten ditugu. Joan den otsailean Bilboko gospel taldearekin eman genuen kontzertua, eta gospel kantak abestu genituen. Noizbehinka rock abestiak ere lantzen ditugu, baina kororako moldatzen ditugu, solistarik ez izateko. Baina orokorrean pop abestiak kantatzen ditugu.

- Zeinek aukeratzten ditu abestiak?

Eztabaidak izaten ditugu, baina orokorrean Elenak hiru kanta proposatzen ditu eta guk bat edo bi onartzen ditugu. Baina azkenean denok egiten dugu ekarpenen bat. Elenak gustu musikal zabala duenez

eta denetik proposatzen duenez, orokorrean ados egoten gara berarekin.

- Zer da korotik gehien gustatzen zaiuzuna?

Gure berezitasuna da ez garela beste koroak bezalakoa. Jendeak uste du koroak serioak direla, denak beti berdina jantzita doazela, oso lirikoak direla, baina gu ez gara horrelakoak. Datorren hilabetean kontzertu bat daukagu Coliseoan, ikasturte amaierakoa, eta oso landuta dauden janzkerekin joango gara, jendea zirrararazteko, deigarria izateko. Dantzan ere egiten dugu, taldean bi dantzari daude eta hauek osatzen dituzte dantzak normalean.

- Zeinek eman dezake izena Koro Gaztera?

Edozein apunta daiteke. Ez da beharrezkoa izugarriko ahots polita izatea edo primeran abesten jakitea.

- Etorkizunean musikaz bizitzeko asmoa baduzu?

Agian ezingo dut musikaz bizi. Horretarako norbaiten semea edo alaba izan behar zara. Niri gustatuko litzaidake lan desberdin bat izatea baina musika ez uztea, *hobbie* moduan izatea. Edo bestela musikarekin harremana duen lana izatea, irratian agian.

www.etakitto.eus

**ALBISTEAK KULTUR-AGENDA
KIROL-AGENDA BERBETAN**

Udaleku irekietarako izen-ematea zabaltzear

Datorren astean, astelehenen zabalduko dute "Oporrak Afariketan" eta "Udan Jolasean", udalak eta Astixak eskaintzen dituzten udaleku irekietan parte hartzeko izen-ematea (maiatzaren 6ra arte), aste honetan aurtengo eskaintza aurkezteko agerraldian adierazi dutenez.

"Oporrak Afariketan" egitasmoa Lehen Hezkuntzako 1. mailatik 6. mailara bitarteko ikasleendako da eta, azken urteotako martxari jarraituta, aurtengo ere txanda bitan eskainiko dute: lehen txanda ekainaren 27tik uztailaren 8ra bitartean izango da eta bigarrena, berriz, uztailaren 4tik 15era bitartean.

Izena emateko Indianokua gaztelekura joan daiteke, goizez 10:30etik 13:00era eta

arratsaldez 16:00etik 18:00etara edo, bestela, internet bidez www.astixa.com webgunean egiteko aukera ere badago. Bide bat zein bestea aukeratu, izen-ematea datorren astelehenetik aurrera barixakura arte egin beharko da, antolatzaileek azpimarratu dutenez, epe kanpo ez dutelako inor onartuko. Matrikulak 60 euro balio du umeko (100 euro bigarren anai-arrebak izena emanez gero eta 150 euro, berriz, hirugarren anaia-arrebaren kasuan). Bestalde, AGI diru-laguntza jasotzen dutenentzat prezioa 20 eurokoa izango da (hori ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko dute derrigorrez).

Egingo diren jardueren eta bestelakoen berri emateko gu-



Aste honetan aurkeztu dute udarako aisialdi eskaintza.

rasoekin bilerak egingo direla aurreratu dute arduradunek: 1. mailako gurasoekin ekainak 14an, 19:00etan; 2. mailako gurasoekin ekainak 15ean, 18:00etan; 3. eta 4. mailako gurasoekin ekainak 15ean, 19:00etan; eta 5. eta 6. mailako gurasoekin ekainak 16an,

18:00etan. Bilera guztiak Portalean, areto nagusian izango dira.

Udan Jolasean

"Udan Jolasean" programa, berriz, 5 urteko haurrentzat (2010ean jaiotakoentzat) da. Kasu honetan aisialdirako eskaintza txanda bakarrean, ekainaren 27tik uztailaren 8ra bitartean antolatu dute.

Jarduerak, gainera, egun erdiz garatzen dira, 10:00etatik 13:00era eta umeak ez dira Eibartik kanpora joaten. Prezioa 40 eurokoa da umeko (20 eurokoa AGI diru-laguntza jasotzen dutenentzat). "Udan Jolasean" programarako izen-ematea "Oporrak Afariketan" egitasmorako epe eta bidei jarraituta egin beharko da (maiatzaren 2tik 6ra arte, Indianokua 10:30etatik 13:00era eta 16:00etatik 18:00etara edo www.astixa.com webgunean). Gurasoentzat bilera informatiboa, bestalde, ekainaren 14an, 18:00etan izango da Portalean.

Gaztetan Udan... Urdaibaira

Pixka bat nagusiagoak direnentzat, 12-16 urte bitartekoentzat Gaztetan Udan egitasmoa antolatuko dute aurtengo udan ere. Horretan parte hartzeko izena ematen dutenek uztailaren 11tik 15era Urdaibaira akanpadan joateko aukera izango dute. Han emango dituzten egunetan, gainera, piraguan ibiliko dira ala, nahiago izanez gero, "paddle-surf" delakoa praktikatu dute. Horrez gain, hondartza eta mendira ateraldiak egingo dituzte. Joan nahi dutenek maiatzaren 17tik 22ra bitartean eman beharko dute izena, Indianokua gaztelekuan, 18:00etatik 20:00etara.



18:00etatik 20:00etara.

667 54 89 16 (Ritxar) kolorlan@hotmail.com



- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97

publi.resa@euskalnet.net

Hilaren erdialdera jakin genuen Xabier Lete III. poesia saria Asier Serrano eibartarrak jasoko zuela, "Linbotarrak" lanagatik. Olerkiak idatzita denbora gutxitan irabazi duen bigarren saria da, berriki Irun Hiria poesia lehiaketan "Ate osteko itzalak" lanarekin saria jaso zuen eta. Horren aitzakiarekin Iturburun irakasle dabilen Serranori elkarrizketa egin diogu, klaseen arteko atsedendia "lapurtuta".

- Sari bi eman dizkizute, biak olerkiekin. Nolakoak dira saritutako lan horiek?

Sariak norberak nola hartzen dituen, horren araberakoak dira. Epeekin nere burua behartzeko modura hartzen ditut nik lehiaketak, arnas luzeko idazketari ekin baino lehen, entrenamendu ariketa gisa idazten ditut olerkiak. "Abisalia" amaituta, ipuinen jarraipen modukoa idazteko asmoa nuen, bizi izan nuen mina kontatzeko. Izan ere, nire mina konpartitzeko era bat da, nire mina unibersalizatzeko modua. Azken batean, min guztiak ezberdinak dira, baina mina denok hartzen dugu. "Ate osteko itzalak" izenburuaren aurretik "Maitale hautsien itzalak" ipintzekotan ibili nintzen. Apurketa sentimentala nola bizi den kontatzen duen lana da, nire bizipenetan oinarritutakoa. Niretzat idazketa balsamo modukoa da. Norberaren argitasuna bilatzeko ilunera joan behar dugula uste dut, gure itzala bilatu. Izakion patua aurrera egitea da eta. Azken batean besteen kalteak egiten gaitu libre. Itzalak, baina, umore beltzaz oso ziprztinduta daude, nire buruaz barre egiten ahalegintzen naitzelako. Gure buruak barkatzen ikasteko ariketa garrantzitsua dela pentsatzen dut. Lan aberatsa izan da.

- Eta jarraian, bigarren olerkianari ekin zenion...

Hori idazten amaitu nuenean etapa bat itxi zen, baina, hala ere, ez nuen nire burua idazkuntza luzerako prest ikusten eta horrela hasi nintzen "Linbotarrak" idazten. Gizarte bat erretratatzeko liburua da hau. Nire lanean konstante bi etenbarik errepikatzen dira: batetik gai egolatrak, niri buruzkoak daude eta bestetik ardura sozialak gidatutako lanak leudeke. Aurreko



"Arnas luzeko idazketarako entrenamendua dira olerkiak"

lana idazten indarra hartu ondoren, nitik gura pasatzea erabaki nuen eta liburuan gaur egungo gizarteari buruz dihardut, gure kontraesanez... Umore beltza darabilt honetan ere, nire burua anti-heroitzat hartuta, hemen gizartea da zigortua. Linboa ez bizirik ez hilik egoteari deitu diot nik, lurraren gainean bizi dugun une hau da niretzat linboa. Gizarte

honetan bizirik egonda hilaren modura bizitzea. Eta era berean, harrigarria egiten zait bizirik ez daudenak, hildakoak gure artean horren presente egotea. Liburuan zakildun aingeruak eta kontzientzia duten deabruak agertzen dira. Nik gizakia maite dut, baina ez taldean dagoenean, horrela gero eta gutxiago gustatzen zaizkit. Gizakiok gure konplexuak

onartzen ez ditugulako izaten dugu biltzeko beharra.

- Ikasle sasoiari askori arraroa egiten zitzaien zuk olerkiak eta idaztea. Nola bizi duzu hori irakaslea zaren aldetik?

Bizitza hiru taldetan bereizten dut: publikoa, pribatua eta intimoa. Lehena eta hirugarrena oso oso ondo babesten ditut, baina pribatua, nire ohiturak eta horrelako kontuak ez ditut ezkututzen. Nire ikasle sasoiari idaztea nire barruko haserrea ateratzeko modu bat zen. Berez, marrazten hasi nintzen, baina irakasleek klasean apunteak hartzen nituela pentsatzeko, errazagoa zen idaztea marraztea baino, horregatik hasi nintzen idazten. Guri irakasle modura itsu-mutilaren rola betetzea dagokigula uste dut, ikasleen dohaiak, zer gustatzen zaien, zerk egiten dituen zorientsu... horiek detektatzeko egon behar gara irakasleak. Kurrikulumak eskatzen dituen gaiak beteta ere, beti dago tranpetarako aukera. Gauza bera gertatzen da ikasgelatik kanpora: beti dago gizarteak eskatzen duena tranpetatzeko aukera.

- EH Sukarraren azken lanerako letrak idazten ibili zara, ezta?

Berez, orain dela 22 urte hasi nintzen horretan. Aurreko batean 300 abestitik gora erregistratuta daukadala jakin nuen, baina nik diskoa atera barik hamar urte daroiat. Horrelako lanak enkarguz egiten ditut, oso azkarra izan da Norton eta biok aspaldiko lagunak garelako, baina horrelako lanek ez naute asebetetzen, nire buruarekin kritikagoa izan behar dudala uste dut. Olerkiak niretzat askatasun sinboloa diren moduan, melodia bati letra ipintzeak lotura dakar, sormenari mugak ipintzen dizkio.

AUTOEN *gehigarria*

35.
zkoa.



Tailer  profesionalak

GASOLEOEN BANAKETA

20.000 L.
2.000 L.

Otaola etorbidea, 13-Bis
Tfnoa. 943 20 73 74 / 94 671 02 77

**GAUEZ ZERBITZU
AUTOMATIKOA**



ZURICH

Lejardi S.L. Aseguru Agentzia

Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar

OLIO ALDAKETAREN GARRANTZIA

- * 3.000 kilometro inguru egiten direnean olio berriz aztertzea komeni da.
- * Errespetatu egin behar dira olio eta auto mota bakoitzarentzat ezarritako gehienezko epeak eta kilometrajeak, beti ere fabrikanteak emandako aholkuak jarraituta.
- * Ezin dira olio mota desberdinak nahastu, horien propietateetan kalteak sor daitezke-eta.
- * Ez zaitez ibili ahalik eta olio merkeena bilatzen. Olioak zenbat eta kalitate handiagoa izan orduan eta berme handiagoa izango duzu autoaren mantenimendurako.
- * Olio aldatzen duzun bakoitzean filtroa ere alda ezazu.

AMORTIGUADOREAK

Amortiguadoreek berebiziko garrantzia daukate, autoaren segurtasun-triangeluaren parte baitira: neumatikoak, amortiguadoreak eta balazta edo frenoak.



Orokorrean amortiguadoreak 20.000 kilometro egiten direnean errebisatu egin behar dira, eta 50.000 kilometro egiten direnean aldatu. Dela dela, hau guztia gidatzen dugun lurraren araberakoa da.

Segurtasunagatik, ondorengo sintomak igartzen ditugunean aldatu behar ditugu amortiguadoreak:

- Balaztatzearen distantzia handitzen denean.
- Alboetako haizearekin autoa zabukatu egiten denean.
- Autoaren gurpilek heltzeko gaitasuna galtzen dutenean.

GURPILAK

Gurpilak egoera onean izateak garrantzi handia dauka, gurpila baita autoak errepidearekin duen kontaktu bakarra. Baina noiz iristen da gurpilak aldatzeko unea?

- * Ganberan **zuloa** daramanean. Neumatikoak oso gogorrek dira eta ia-ia denetik jasaten dute, baina zuloek kalteak eragiten dituzte, nahiz eta batzuetan ikustezinak izan. Horregatik garrantzitsua da aditu batek zulatutako gurpilak ondo begiratzea, batzuetan konponezinezko barne-kalteak izaten baitira.

* **Errodamendu bandan gehiegizko higidura dagoenean**

beharrezkoa da gurpila aldatzea. Marrazkiaren gehienezko sakontasunaren mugara heltzen denean (1,6 mm) gurpilak aldatu egin behar ditugu.



- * Gurpiletan **begibistako kalteak** daudenean. Bideko zulo edo bordillo batekin talka egiterakoan gurpilak kalteak izan ditzake. Deformazioren bat igarritz gero, neumatikoa profesional batek aztertzea komeni da.
- * Gurpilek **5 urte baino** gehiago badituzte autoa tailer batera eramatea komeni da, eta beharrezkoa da aldatzea legeak markatzen duen marrazkiaren sakontasunaren mugara helduz gero. Gainera, komenigarria da gurpilak aldatzea 10.000 km egin eta gero.

OTAOLA, 9 - 2. esk. Tel./Fax. 943 206 552
IRH MOTOS EIBAR

AUTO KONPONKETAK AURRERA

- Mekanika - Elektrizitatea
- ITVrako errebisioak
- Frenoak - Amortiguazioa
- Mantenimendua - Erroberak

Urtzaile, z/g 20600 EIBAR
 Telefono eta Faxes: 943 20 80 65 (Gipuzkoa)

Torrekoa, 2
 20600 EIBAR

Tel. eta Faxes
 943 20 62 48
 Tel. 943 20 70 31
 eseibar@facilnet.es

ESTACION DE SERVICIO AVIA EIBAR, S.A.

FURGONETEN ETA AUTOMOBILEN GARBIKETA
 AUTOMATIKOA ETA PRESIOAREKIN
 LUBRIFIKATZAILAK
 GASOLEOEN ZUZENEKO BANAKETA

24 ordutan zabalik
www.estaciondeservicioeibar.com

Talleres Caño
 Ibilgailuen mantentze integrala
Oscar Caño Rubio

Urki 31 Behea (Armagin 8 ac) 943 530 870
 639 517 044
 Oscarc.rubio@gmail.com

FRENOA

Frenoak eta gelditze-sistema dira, segurtasun alorrean, autoaren elementu garrantzitsuenetakoak. Frenoak autoa gelditzeko dira, baina desgastea jasaten dute eta, ondorioz, eraginkortasuna txikiagotu egiten da eta aldatzea ezinbestekoa gertatzen da.

Diskoak, pintzak eta pastillak dira gelditze-sistemaren oinarriko elementuak. Horien ezaugarri nagusia autoak izan dezakeen freno-potentzian datza, eta hori,aldi berean, freno-distantziari lotuta dago. Freno-distantzia ondorengo osagaien araberakoa izango da: neumatikoak eta presioa, amortiguadoreak eta suspentsio-osagaiak, zoluaren egoera, autoaren karga... eta, jakina, gidariaren abilezia eta egoera. Freno edo balaztatze-sisteman aurreko eta atzeko pastillak eta diskoak aipatu behar dira. Hala ere, ez dira higadura edo desgastea jasaten duten bakarrak eta, denbora pasatzerakoan eta kilometroak egitearen ondorioz, aldatu beharra egoten da.

Dena dela, diskoak eta pastillak dira sarriago aldatu behar izaten direnak. Igurtzimendu edo marruskaduraren ondorioz lehenengo **pastillak** gastatzen dira, horien frikzio-materiala bigunagoa baita. Dena dela, autoa erabiltzeko modua dela eta (hiria, karga, lurzorua) batzuetan diskoak pastillekin batera aldatu behar izaten dira.

Atzeko frenoak txikiagoak izaten dira, inertiagatik gelditzearen pisua ez dutelako jasaten, eta aurrekoak baino gutxiago higatzen dira. Aurrekoak baino bi edo hiru aldiz gehiago irauten dute.

Pastillak aldatzeko beharra normalean erraminta-kuadroko argitxo baten bitartez adierazten zaigu, eta beste batzuetan soinu baten bidez bidaltzen da informazio hori. Auto batzuetan, berriz, ez dago oharra bildatzen duen dispositiborik. Horrelako kasuetan freno-liikidoaren bitartez ikus dezakegu zein den pastillen egoera: pastillak gastatzen doazen heinean likido maila baxu egotearen arrazoia beste bat ere izan daiteke, zirkuituan ihesaldi bat egotea, alegia. Horren ondorioz pedalaren presio eza igarriko dugu.

Pastillekin duen igurzketak dela eta, **diskoa** ere higatu egiten da. Fabrikanteak adierazitako gutxieneko lodierara iristen denean aldatu beharra dago diskoak. Pastillak gastatu badira, igurtzerakoan, diskoak birrindu (rallatu) egin dezakete, nahiz eta diskoak lodiera egokia izan. Birrindutako disko bat ez da ondo akoplatzen pastilla berrieekin, eta gelditzeak eraginkortasuna galdu dezake, geldialdian bibrazioak eta zaratak eragin ditzake eta pastillak lehenago hondatzen dira.





NISSAN

Innovation that excites

3

URTEKO MANTENTZEA, BERMEA ETA LAGUNTZA



CROSSOVERS NISSANEN GAMA BERRIA

12.900€*

- TIK HASITA

YOU+NISSAN

GURE KONPROMISOA, ZURE ESPERIENTZIA.

- Kortesiazo ibilgailua doan
- Zerbitzuko prezioak berdinduta
- Nissan Assistance bizi osorako
- Ibilgailuen azterketa doan

Ezagutu zehaztasunez Bezeroen Promesa Cliente programa hemen: nissan.es/promesacliente edo kontzesionarioen gure sare ofizialean.

GAURSA

Otaola Hiribidea 22 - 20600 Eibar - Tel. 943 82 09 74

www.gaursa.com

Kontsumo mistoa: 3,8 - 7,3 l/100 km. CO₂ isurpenak: 99 - 172 g/km.

* Penintsulan eta Balear uharteetan gomendatutako PSPa, honako hauek barne: FAP, garraioa, Nissan Assistance, sustapen-deskontua, PIVE 8 plana, BEZa eta ZGGZB Espainiako merkaturako. Baliteke aplikagarria ez izatea zure komunitate autonomoan. Nissan JUKE Visia 1.6i 94CV (69 kW) eskuzkoa erosten duten banakoentzat eta autonomoentzat balio du eskaintzak. Haien izenean dagoen ibilgailu erabilia eman behar dute eta RCI Banque SA bankuko Espainiako sukurtsalaren Magic Plan 3D erabilia finantzatu behar dute. Finantzatu beharreko gutxieneko zenbatekoa: 6.000 €. 24 hilabeteko gutxieneko iraupena. 3 urteko mantentze-kontratua (kilometro kopuruaren mugarekin). Sartutako berrikusketak Bermeen Liburuaren eta Mantentze Ziurtagiriaren araberako estandarrik dira. Salbetsita daude Flotak eta enpresak. Eskaintza hau ez da bateragarria izango beste kanpaina batzuekin eta hilabetearen amaierara edo PIVE 8 plana agortu arte egongo da indarrean (lehenago gertatzen dena). Informazio gehiagorako, joan gertuen duzun kontzesionariora. Baliteke bistaratutako irudia ez etortzea bat eskaintako ibilgailuekin.



osasun DOSIAK



iokin elortza
BOTIKARIA

Alergiak

Udaberria heldu da eta berarekin batera alergia kasuen gorakada. Horrela, ohikoak bihurtzen zaizkigu, sasoi honetan, alergiekin lotura duten kontsultak. Baina zer dira alergiak? Ondo dakigu zer diren? Askotan sintomak beste patologia batzuekin nahasten ditugu, batez ere katarroekin, eta honek nahasmena sortzen du. Ondo ulertzeko: alergia bat, gure sistema inmunitarioaren ez-ohiko erantzun bat da. Hau da, gorputzak arriskurik gabeko substantzia bat patogeno arriskutsu bat balitz bezala hartu, eta patogeno horri aurre egiteko erantzunak martxan jartzen ditu, horretarako, gorputzean histamina askatuz.

Erantzun horiek mota askotakoak izan daitezke, baina ohikoenak, rinitisa, konjuntibitisa, asma eta azaletako ekzema edo dermatitisak dira. Horiei aurre egiteko, badira botikan aukera ezberdinak. Alde batetik, sintomatikoak, begirako tantak, sudur edo birikendako inhaladoreak, pomadak, kremak.... "Anti-histaminikoak" ere asko erabiltzen dira.

Esan bezala, gure sistema inmunitarioak "babes neurriak" martxan jartzeko histamina askatzen du, eta "anti-histaminikoen" bidez sistema immunologikoaren ez-ohiko erantzun hori leundu edo ekiditzen saiatzen da.



Esan bezala, gure sistema inmunitarioak "babes neurriak" martxan jartzeko histamina askatzen du, eta "anti-histaminikoen" bidez sistema immunologikoaren ez-ohiko erantzun hori leundu edo ekiditzen saiatzen da. Eta azkenik, badira prebentzio lana egiten duten produktuak, normalean gutxi erabiltzen ditugunak, baina alergiaren bat daukagunok, erabili beharko genituzkeenak. Udaberria gainean daukagu, eta bada ordua hasteko!


Kanpoan hustutzea ez da antisorgailua

Hori baieztatzen da preserbatibo marka baten azken publizitate kanpainan. Argi dago, baina sexua praktikatzerakoan ez dago espero bezain barneratuta. Pertsona batzuk onartzen dute kondoia ez erabiltzeak ekar dezakeen arriskua, baina, hala eta guzti, ez dute kondoia erabiltzen eta "atzerako martxa edo kanpoan hustea" erabiltzen dute. Edo kondoia bakarrik koitoaren amaieran erabiltzen dute, isurtzea edo eiakulazioa iristear dagoenean. Zeintzuk dira horren arrazoiak? "Kondoiarekin ez da gauza bera", "ez da ber-

din sentitzen", "kondoia momentua zapuztu egiten du",... Egia da antisorgailuaren alorrean ez dagoela aukera handirik: hormonatzen zara, DIU bat jartzen duzu... edo preserbatiboa erabiltzen duzu. Gero metodo kirurgikoak daude (basektomia eta tronpen lotura), baina horiek egokiak dira seme-alabarik nahi ez dutela argi dutenentzako edota jadanik izan dituztenentzako.

Bestalde, ezin dugu ahaztu sexu bidez transmititutako gaixotasunak izateko arriskua ere hor dagoela. Kondoia da sexu bidez

arantza alvarez
SEXOLOGOA



transmititutako gaixotasunetik eta Giza Immunoeskasiaren Birusetik (GIB) babesteko kontrazepzio metodo bakarra.

Asko erlajatu gara babesterako orduan; sexu-harremanak izateko unean gutxienekoak iruditzen zaizkigun beharrezkoak ez diren arriskuak hartzen ditugu. "Zeozter gertatzen bada" bature atsegina ez den egoera baten aurrean egongo gara. Eta atzerako martxaren zein momentutan dago arriskua? "Euria baino lehen zipriztinak hasten di-

ra". Gizonak isurketaren kontrol handia izan dezake eta sasoi urrundu baginatik; baina, esperma isuri baino lehen, likido aurreseminalaren tanta batzuk ateratzen dira, espermatozoideen proportzio txikiagoarekin, baina haurdunaldia gertatzeko adinarekin. Gainera Giza Immunoeskasiaren Birusa ere badauka. Hortik aurrera bakoitzak erabaki dezala, baina ez dezagun gure burua engainatu "niri ez zait horrelakorik gertatuko" pentsatuz, gertatu gerta daitekeelako.

sex KONTUAK



Eibarko nesken taldeak mailari eusteko partidua du Leioan etzi

Bi jardunaldi falta direnean liga amaitzeko, Eibar Foball Taldeko nesken talde nagusiari gauzak zaildu zaizkio. Azken jardunaldian Zizur Nagusian jokaturako partiduan Ardoirekin 3-1 galdu zuten eibartarrek eta, atzetik datozenek irabazi zuten, gauzak estutu egin dira sailkapenean: talde asko jaisteko oraindik erabaki gabeko postutik ihesean. Beste gol aukera baztuk izan arren, Olatzek sartutako golarekin konformatu behar izan zuten Eibar FTkoek. Etzi goizean Leioan 09:30ean jokaturako dute Leioako Emakumeak-en aurka eta, armaginak beste taldeek baino bi puntu gehiagorekin daudenez eta gol-averagea ere alde dutenez, irabazita aurrerapausua emango dute.



Dianaren barbo lehiaketa

Gure herriko ehiza eta arrantza elkarteak bazkideentzako barbo lehiaketa antolatu du maiatzaren 7rako. Berriatuan jokatuko da goizeko 08:00etatik eguerdiko 13:00ak arte. Parte-hartzaileek hasi baino ordu erdi lehenago egon beharko dira bertan.

Eibarko Txirrindulari Elkartearen DVD-a salgai

Eibarko Txirrindularitza Elkarteak editatu duten DVD-a salgai jarriko da maiatzaren 1ean. Valenciaga Oroitzarrea zela eta aurkeztu zuten Elkartearen 90 urteak jasotzen dituen lana 6 eurotan erosi ahal izango da herriko hainbat tabernatan (Trinkete, Ongi Etorri, Birjiñape, Guridi, Arkupe) eta EBK bizikleta dendan. Sanjuanak pasatu arte egongo da salgai.



Andorrara joandako Kalamua klubeko ordezkariak.

Kalamuakoak arrakastatsu Andorran Calatayudera joateko bezperatan

Andorrako Hiria nazioarteko judo torneoaren 25. edizioan izan ziren, urterokoari jarraituta, Kalamuako judokak. Ohikoa denez, hainbat domina ekarri zuten etxera. Zapàtuan, 19 klub parte-hartzearekin, absolut mailakoen borrokak izan ziren eta hor Iker Martinezek brontzezko domina eskuratu zuen. Domekan, bestalde, 30 klubetako 400 ordezkari eskaintako jardunaldian, kadeteetan Marti-

nezek urrezkoa eta Unai Zugastik brontzezkoa lortu zuten, infantiletan Asier Nuñezek, Maren Martinek eta Gaizka Merinok jabetu ziren urrezkoaz eta alebinetan Koldo Estenaga eta Asier Eslava. Azken bi kategoria horietan brontzezko beste lau domina eskuratu zituzten Kalamuakoek. Bihar Calatayudera joango dira Kalamuako zortzi ordezkari, Jiu Jitsuko Espainiako Kopan parte hartzera.

Eibarrek gaur jokaturako du Xixonen

Hiru jardunaldi falta dira liga amaitzeko eta eibartarrek El Molinonen (20:30ean) jokaturako dute gaur, jardunaldi honetan aurreratutako partiduan. Mailari eusteko borroka bizian diharduen Sporting izango dute aurkari eta zelaia lepo beteko da, hil ala biziko partiduen aurrean. Hemendik ehun bat lagun joango dira Mendilibarren taldea animatzera. Eibar FT-an, bestalde, denboraldi arrakastatsua jaialdi batekin ospatzeko asmoa dute, oraindik zehaztu barik badago ere noiz egingo den. Gainera, Espanyol-en aurka ligako azken partidua jokatu eta gero, eibartarrak Estatu Batuetara joango dira, han Floridan eta Kalifornian jokatzeko asmotan. Hamabost egun emango dituzte han udako oporrak hartu baino lehen.

M^a JESUSA AMUNATEGI IKAZURIAGA (2016-IV-25)



“Gure bihotzeko ama, amama, emaztea... hain ona izan zarelako. Eskerrik asko guztioi laguntzarren” ETXEKOAK

Senidekoen izenean, **ESKERRIK ASKO** hileta-elizkizunera joan eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen guztioi.



Elena Sudupe gimnastak domina lortu zuen Espainiako txapelketan

Azaroan Zaragozan Ipurua Klubeko kadete oinarriko taldeak zilarrezko domina eskuratu bazuen, talde horretako Elena Sudupe gimnastak brontzezkoa lortu berri du Xixonen jokaturako banakako Espainiako jubenil oinarri mailako txapelketan: mazekin egindako ariketa bikainak hirugarren postura (9,717 notarekin) igo zuen Ipuruako gimnasta, 178 kirolarien artean. Eibarko 11 gimnasta izan ziren Asturiasen eta Malen Txurruka (10.a 195 gimnasten artean) kadete oinarriaren eta taldekako Kopan

bost maza parekin parte hartu zuen infantil oinarri taldea (hau ere 10.a) nabarmendu ziren.

Gimnasiaren I. Eguna maiatzaren 7an

Ipurua Klubak bere gimnasta eta euren familiak mobilizatu ditu kalera irtetzeko datoren asteko zapatuan, egunean zehar egingo dituzten entrenamendu-saio eta erakustaldiekin. Modu horretan, jendearen parte-hartzea bultzatuz, entrenatzaile eta gimnasten lana ikusi ahal izango da. Ipuruak ekonomia arloan bizi



Xixonera joandako ordezkariak, tartean Sudupe brontzezko domina.

duen une zailari aurre egiteko txosna ere zabaldu dute eta ziklomotorra zozketatuko dute.

Aurretik, bihar Bergaran jokatuko diren Gipuzkoako Ama-

teur eta Eskola A txapelketetan izango dira hiru talde eta 17 gimnasta, senior A, infantil A eta Kadete B taldeak ordezkatzu.

Durangok eraman zuen Kirolbet.es saria

Miguelen eta Xabierren golekina, Eibarko foball-zaletu torneoko Ligaren irabazleak Sagarrari (Alex-en gola) gailendu zitzaion ermutarren eta eibartarren arteko lehiaren seigarren edizioan. Eraitza horrekin Eibarko torneokoek berdinu egin dute hiruna garaipenera ermutarrekin. Durango, bestalde, Koskor eta Txokori gehitzen zaizkie Eibarko garaile zerrendan, azken bi edizioetako finaleran galdu ondoren oraingoan mendekua hartuta.



Asteburuan Kopako torneoa hasiko da Unben, honako partiduekin: bihar Durango-Txoko (09:00), Mujika-Kontent (10:30) eta Aretto-Machado (12:00) partidua jokatuko dira; eta etzi EzDok-Garcia (09:00), Ipur-Sporting (10:30) eta Esmorga-Alkideba (12:00) jokatu beharrekoak. Aurreratutako partiduan, bestalde, Slow Xok-ek Azkena Adahiri irabazi zion 4-3.

Katu Kaleren garaipena maila galdu ondoren

Saskibaloiko Katu Kalek ligako bigarren itzuliko lehen garaipena eskuratu zuen Ordiziarri 63-58 gailenduz. Lehen itzulian ere garaile izan ziren eibartarrak Ordizian. Neurketa oso parekatua izan zen: 15-13 eibartarren alde lehen laurdenaren amaieran, 31-29 etxekoan alde atsedendian, 40-43 ordiziarren nagusi hirugarren laurdenaren amaieran eta, lasai jokatuta, azken laurdeneko 23-15ekoari esker, Katu Kalekoen garaipena bost puntuko abantailarekin. Aurreko partiduetan alde txikiarekin galdu eta gero, garaipen honek animoak emango dizkie hurrengo denboraldian maila berriro berreskuratzeke. Ibai izan zen saskiratzaile onena (12 puntu), Will eta Andersonen aurretik (11 bakoitzak).



Eibar Energia Hirikoak Lazkaon eta Legazpin

Bihar Lazkaon eta etzi Legazpin jokatuko dira Lehendakari Sariaren hurrengo bi probak, eta bietan izango dira Eibar Energia Hiriako txirindulariak. Aurreko asteburuan Duranan jokatutako lasterketa Lizarte ahalguztidun taldeko Samitierrek irabazi zuen, Gatzagan hamar laguneko taldeari aurrea hartuta. Tropeletik aurrera egindako hamabost lagunek osatutako bigarren multzoan iritsi zen helmugara Asier Taboada Klub Deportiboko taldearen lehen ordezkaria.

Aitor Hernandezen garaipena

Ermutarrak BTT denboraldiko lehen garaipena eskuratu zuen Erandioko XI. edizioan, Euskadiko Openaren laugarren proban. Tarragonan kontzentratuta egon da astebete Specialized-Ermua Impulsoko txirindularia eta ondo baliatu zuen ibilbide lokatuak eskaintzen zion abantaila, bide batez helburutzat duen ziklo-kros denboraldia prestatzen jateko lagungarri: "Gozatu dut igoera eta jaitsieraz betetako ibilbideaz. Ziklo-kros proben antza hartu diot lasterketari".



Aitor Hernandez Erandioko podiumaren goi-goian.

Delteco Triatloi taldea Espainiako txapelketan

Aurreko asteburuan Sorian jokaturako Espainiako taldekako duatloi txapelketan izan zen Eibarko kluba eta, 280 talde-tik, 66. postuan amaitu zuen Roberto Gartzia, Jon Illaramendi, Gonzalo Saez eta Alberto Manzanaresek osaturako laukoteak.

Bestalde, Aizarnazabalgo duatloi luzean Pello Osoro bigarren postuan helmugaratu zen, orain dela gutxi izandako erorketa batetik errekuperatu berri. Joseba Ortega 41.

postuan sartu zen eta Mikel Laskurain 106.ean. Ortega bigarrena izan zen V2 berteranoen mailan. Euskadiko eta Gipuzkoako duatloi luzeko (14 kilometro korrika, 72 km. bizikletan eta beste 7 korrika) txapelak zeuden jokoan Egoitz Zalakainek eta Laura Alvarezek irabazitako proban. Osorok 3 ordu 20 minutu eta 14 segundo behar izan zituen proba amaitzeko, irabazleak baino minutu bat eta 21 segundo baino.



Eibarko laukotea helmugaratze unean. 66. postua eskuratu zuen 280 laukotereren artean.

Urbat waterpolo taldea azken aukeraren aurrean

Datorren denboraldian Euskal Herriko 1. Mailan jarraitzeko azken aukera izango du Eibarko taldeak hurrengo bi partiduetan, biak ere irabazi behar dituelako. Santoñan asteburuan jokaturako partiduan 8na berdindu zuten kantabiarrek eta eibartarrek, baina penaltietan (3-4) galdu eta gero, Orbean jokatu beharreko hurrengo biak irabazi behar dituzte Davide Cerchiren mutilek. Bihar 14:30ean izango dute aurrenekoa, irabazi beharrekoa bigarren bat Eibarren jokatu eta irabazteko.



Salgado eta Cabanillas Euskadiko squash txapelketan beteteranoetan

Gasteizko Mendizorrotzako pistetan aurreko asteburuan jokaturako Euskadiko squash txapelketan izan ziren Eibarko Klub Deportiboko bost ordezkari eta euretako bi txapelarekin bueltatu ziren. Guztira 45 jokalarik hartu zuten parte, bost mailatan banatuta: Sergio Salgado 40 urtetik gorakoetan eta Miguel Cabanillasek 50etik gorakoetan irabazle izan ziren moduan, San Juaneko Aitor Elizalde 35etik gorakoen artean nagusitu zen, FreeSquash-eko Oier Quesada 35etik behekoen artean eta AKE Squash-

eko Laura Saezek emakumezkoen txapela jantzi zuen. Eibartarrei dagokienez, Cabanillas erraz nagusitu zen bere mailan, finalean ere Gasteizko Javier Crespori 3-0 irabazita. Salgado, bestalde, gogor jardun behar izan zuen txapela jantzeko: bere mailan jardun zuen Jon Losada taldekidea kanporatu zuen lehen txandan, neurketa zirraragarrian. Finalerdietan, bestalde, Benediktako Aitor Yanguasi irabazi zion bosgarren jokoraino luzatu zen lehian. Finalean FreeSquash-eko Jorge Amestoy izan zuen zain (gasteiztarrak

Alberto Ferreiro eibartarra kanporatu zuen 3-1 finalerdietan). 2-1 galtzen joan eta gero, partiduko bi bola jasota, bina berdindu eta azken jokoak 14-12 irabazteko gauza izan zen Salgado. Klub Deportiboko bosgarren ordezkaria Josu Gallastegi izan zen 35 urtetik behekoen artean.



Areto-foballeko infantil mailako Debarrena finalerdietan

Boehm-ek lortutako bi golekin, eibartarrek bina berdindu zuten Eskolapioak taldearekin eta, Aldapetaren aurka jokatu beharreko azken partiduen faltan, Debarrena Gipuzkoako txapelketaren finalerdietan izango da: falta den bigarren faseko partidua eibartarrek etxean edo kanpoan jokatuko duten erabakiko du, jakina aurkaria zein izango dutenekin batera.

Bigarren B mailako Concepto Egilek, bestalde, egurra jaso zuen Zaragozako Colo Coloren kantxan (7-0). Saillkapeneko bigarrenak golak sartzeko erraztasun handia erakutsi zuen. Asteburu honetan ez da partidurik izango eta, denboraldia amaitzeko bi jardunaldiren faltan, Debarrenakoek bosgarren postua dute helnuru.



Boehm-ek lortu zituen azken partiduko bi golak.

2003an abiatutako Argazkilaritza Maiatzean hilabete osorako programazioak 14. edizioa beteko du aurten. Argazki munduaz gozatzeko aukera eskaintzen duen Klub Deportiboko argazkilaritza taldekoek prestatutako egitarauak hainbat erakusketa hartzen ditu eta, horiekin batera, baita ikasteko tailerra eta gero eta indar handiagoa hartu duten kaleko topaketak ere.



Klub Deportiboko argazkilaritza taldekoek urte osoko lana borobiltzen dute maiatzerako prestatutakoarekin.

Argazki munduak hartuko du maiatza

Klik. Eta maiatzaren 2an Manuel Vilanovaren "Faces of the world" El Corte Inglésan, Eibarko Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldekoenak El Ambigú eta Portalea tabernetan eta Argizaiola Trofeo-koak Deporren. Lau erakusketak horiek zabalduko dira hilaren 31ra arte. **Klik.** Maiatzaren 6an Agustin Sagasti, Koldo Badillo eta Oskar Gastonen banakako erakusketak irekiko dira Portalean, hiru horiek hilaren 29ra arte. **Klik.** Jose Manuel Lucenaren lanak erakusgai izango dira azken epe horretan, baina Arrate Kultur Elkarteko Topalekun. **Klik.** Gipuzkoa Nazioarteko Sariaren lan onenak hilaren 6tik maiatza amaitu arte, 31ra

arte, ikusi ahal izango dira Untzagako Jubilatuen Etxean. **Klik.** Eduardo Momeñek zortzi orduko argazkilaritza tailerra eskainiko du maiatzaren 7an Portalean, "argazkilaritza praktikatzeko hainbat proposamen" eskainiz. **Klik.** Hilaren 14an "argazkilaritzarekin kalean topaketak" egiteko aukera izango da, arratsaldea hartuko duten ekitaldiekin: erakusketa kolektiboa, estudio-erretratuak, kamara minutularia eta argazki artistikoak saltzeko stand-ekin. **Klik.** Eta izango da tarterik urteroko argazki rallya jokatzeko maiatzeko azken domekan, hilaren 29an.

Maiatza guztia argazkiz (eta ez edonolakoekin) betetzen



Miguel Cabezas
Marques de Rocaverde
Sariaren irabazlea.

zioa 20 euro da. Tailerra zortzi ordukoa izango da, goiz eta arratsalde: 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Hurrengo zapatuan, hilaren 14an, argazkilaritzarekin kalean topa egiteko ordua izango da: hor izango dira azken urteotako erakusketa kolektiboa aire librean, udal-arkupetan egingo diren doako estudio-erretratuak, kamara minutulari bitxia eta "argazki artistikoak" salgai egongo diren stand-a. Arratsaldeko 17:00etatik 21:00ak arte izango dira topaketak.

Eta hilaren azken domekan, goizeko 08:30ean hasita, argazki rallya egingo da, Klub Deportibotik irtenda. Zuribeltzean eta digitalean egiteko aukera izango dute parte-hartzaileek.

Erakusketa bereziak

Argazkilaria handien lanek hartuko dute herriko erakusleiho gehienak hilabete osorako. Portalean izango dira horietako hiru: Koldo Badillok bere "irudi-basoan sartzeko gon-

bada ere, asteburuetan antolatzen dira ekitaldi nagusienak: horrela, hilaren 7an (zapatua) Eduardo Momeñe argazkilaria eta argazkilarien maisuaren tailerrean "Argazkilaritza praktikatzeko hainbat proposamen" egingo dira. ETB-k eskaini zuen artea begiratzeko "La puerta abierta"-ren egilea izan zen eta "La visión fotográfica" argazki munduan dihardutentzako liburu erreferentia idatzi zuen. Tailer horretan parte hartzeko izena eman daiteke deporeibar.com web orrian; plaza mugatuak daude eta pre-



Argazkilaritzarekin topaketak egiteko aukera izango da kalean.

bitea" egiten digu, Agustin Sagastik "arkitektura eta denborarekin jokatzeko parada" eskaintzen digu eta Orkar Gaskonek azken Indalezio Ojangueren argazki lehiaketan jasotako Ohorezko Sariaren zergatiak erakutsiko dizkigu.

Topalekun erakutsiko ditu bere argazkiak Jose Manuel Lucena Deporrek argazki taldeko partaideak, "oraingoan formatu handian, ikuslearengan egonezina eragiteko". Manuel Vilanova El Corte Inglésan izango da, hainbat herrialdetako pertsonaien "begiradaren bitartez euren bizitza narraitiba" transmititzeko duen indarrez baliatuta.

Untzagako Jubilatuen Etxean Gipuzkoa Nazioarteko Sariari izandako lanak dastatuko ditugu: "46 herrialdetako 443 argazkilarik bildu ditu Sari horrek, 4.656 argazki guztira". Argizaiola Trofeoko irudiak Klub Deportiboan bertan ikusi ahal izango dira, zenbait lehiaketetan saritutako argazkiekin egindako bilduman. Gure herriko I. Ojanguerenkin batera daude Bergara, Donostia, Irun, Legazpi, Beasain, Bilbao, Ordizia, Tolosa eta Zuamaiaiko lehiaketetan saritutakoak.

Eta Deporrek argazkilarien lanak El Ambigú eta Portalea tabernan egongo dira. Taldeak ikaragarritzko abiadura hartu du



Doako estudio-erretratuak aterako dira 14an. **Fernando Retolaza**

azken urteotan, 1980. hamarkadatik hona batez ere. Gero eta argazkilarik gehiago dira tal-

dean, jende gaztea ere gehitu zaie, eta lan nekazinean jarduten dute, euren lanak hainbat lehiaketatan aurkeztuta. 2009an eskuratutako Argazkilaritzako Sari Nazionalarekin indarberrituta, hilero hiru erakusketa antolatzen dituzte herrian, aldiro prestatutako beste ekitaldi askoren artean; ahaztu barik urtero jende gehiago erakartzeko antolatzen dituzten ikastaroak.

Hilabetekoa aurrera eramateko, Eibarko Udalarekin batera, Ikatz, El Corte Inglés, Arrate Kultur Elkartea, El Ambigú, Portalea jatetxea eta Euskal Herriko eta Gipuzkoako Argazki Elkarleen babesa dute.



Xiamoeng Zhang. Ur mailako irabazlea.

HERRI 33 URRATS 2016 Jalgi

euskara
Jalgi hadi
 mundura

autobus
 Goizeko **08.30**ean
 IRTENDA

12€

zerbitzua
 Arratsaldeko **19.00**etan
 BUELTATZEKO

MAIATZAREN 8A SENPERE

J.A. MOGEL IKASTOLAKO GURASOEN ELKARTEA ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA

fM Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

EIBAR **ELGOIBAR**

Beilatokia
 Funeuskadi Eibar:
 Otaola, 27

Beilatokia:
 SIGMA Industrialdea
 (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko
 erdialdean

Bulegoa
 Bidebarrieta, 20

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**



JASONE OSORO
(idazlea)

"Askeago sentitzen naiz **12etan bermuta idatzi eta gero**"

Jasone Osoro izango da *Harixa Emoten* literatur tertuliak ikasturte honetan hartuko duen azken idazlea. Hitzordua maiatzaren 3an izango da, Portalean, eta bertan kazetari eta idazle elgoibartarraren *12etan bermuta* azken eleberriaren gainean egingo dute berba, Antxon Narbaizaren gidaritzapean. Aurretik "Tentazioak" eta "Korapiloak" ipuin liburuak eta "Greta" eleberria idatzi ditu, besteak beste, eta gaztetxoei zuzendutako hainbat lan argitara eman ditu. Gaur egun Euskal Idazleen Elkarteko lehendakaria da.

- **Oraindik liburua irakurri ez duenari, nola aurkeztuko zenioke?**

Berta 40 urte inguru dituen emakumea da. 24 ordu pasako ditu ohean, Edith Piaf entzuten, zorabio batean altxatu ezinik, esnatu nahi ez duela, ezin. 24 ordu horietan bere bizitzan garrantzitsuak izan diren pertsonen hitz egingo die: ama, aita, amama, senarra, alaba, maitalea, anaia eta lagun mina. Aurrez aurre izango balitu bezala arituko da, haiekin bizi izandakoak oroitzu eta sentitzen duenaren errua haiei botatz, gertatzen zaiona ulertu nahian edo.

- **Burura etortzen zaizkion ideiak botaten ditu Bertak. Zer gertatzen zaio Bertari? Bizitzako une batean ala bestean guztiak izan gaitzke Berta?**

Berta gutako edozein izan daiteke. Te-

orian dena daukagu: lana, lagunak, familia... Baina batzuetan hutsune modukoa sentitzen dugu. Zoriontasuna bilatu behar dugula esan digute, baina ez gara zoriontsu sentitzen. Eta egonezin horren aurrean ohea da gure lubakia, gure egonezinarren errudunak besteak direla pentsatzeak kontzientzia lasaitzen digu... Baina gure barneko ahots ilun batek esaten digu geu garela gertatzen zaigunaren erantzuleak edo, gutxienez, gertatzen zaigun horren aurrean modu batera edo bestera sentitzea gure esku dago, borroka egiten segitzea, edo etsitzea.

- **Liburuak ez du narrazioaren logika jarraitzen. Zergatik?**

Emozioen kaosaren logika islatu nahi nuen. Bertari bere bizitzako zertzeladak

etortzen zaizkio burura, modu desordenatu batean, oroitzapenak erabat desordenatuta etortzen zaizkigu. Nik idazkeran ere islatu nahi nuen hori, botaka emozional hori. Badirudi anabasa modukoa dela, puzzle baten pusketak direla paragrafoak, paragrafo bakoitzak istorio bat kontatzen duela, baina bukaeran paisaia emozional bat osatzen da.

- **Liburua barruko korapiloa askatzeko bidea izan dela aipatu duzu.**

Katarsia izan da. Txikitatik erabili izan dut idaztea nire barruko korapiloak askatzeko eta nire burua ordenatuz mundua, pertsonak hobeto ulertu eta onartzeko. Askeago egiten gaitu horrek. Ni askeago sentitzen naiz *12etan bermuta* idatzi eta gero.

Eskolarteko antzerkia protagonista

Datorren astean abiatuko dira Debabarreneko Eskolarteko XXXII. Antzerki Jardunaldiak, eguenean Narruzko Zezen taldekoen emanaldiarekin: Unibertsitate Laboralean sortutako konpainia azken boladan gaztetu egin da eta, aurtengo Antzerki Jardunaldietan estreinatutako "Objetos perdidos" lanak izan zuen arrakasta ikusita, eskolarteko antzerkiari eskainitako egitarauaren barruan berriz taularatzea erabaki dute (Hezkuntza Esparruan, 20:30ean). Eta, Eibarko antzezle gazteek hasiko duten egitarauari esker, hilabete osoan izango da era guztietako antzezkizunekin gozatzeko aukera.



Hilabete osoan ikusi ahal izango dira lanak.



Javier Gorosabelen biografia interneten

Orain dela urtebete hil zen Javier Gorosabel Urkiaren **biografia interneten**, Ego Ibarra batzordearen webguneko "Eibartarrak" atalean irakurgai ipini dute haren heriotzaren urteurrenean. Eibarren 1969an jaio zen astrofisikariak zientzialari-ibildu paregabea egin zuen eta, besteak beste, gamma izpien eztanda kosmikoen fisikan azken 15 urteotan eibartarrak egin dako ekarpenak funtsezkotzat hartzen ditu nazioarteko astronomia-komunitateak.

Ipurterre lehiaketak baditu irabazleak

Aste honetan eman dituzte ezagutzera Ipurterre Ipuin eta Gutun lehiaketako 22. edizioko irabazleak: LH 1-2 mailan, Zoihartze Elizegi (J.A. Mogel ikastola); LH 3-4 mailan, Salma Aghbalou (Urkizu); LH 5-6 mailan, Ainara Landa (La Salle Isasi); DBH 1-2 mailan, Miren Ferrero (La Salle Azitain); eta DBH 3-4 mailan, Izei Sologaitua (Mogel Isasi). Lehiaketako antolatzaileen berbetan, "ehundaka ipuin eta gutun jaso ditugu aurten ere. Epai-mahaia osatu duten 21 lagunek ez dute lan makal izan horrenbeste ipuin eta gutunen artean irabazleak hautatzen. Eskerrik asko parte hartu duten guztiei eta saridunei, berriz, zorionak!". Irabazleei saria banatzeko ekitaldia maiatzaren 11n egingo da, 10:00etan Hezkuntza Esparruko antzokian.



"Pirata Garrapata" bihar liburutegian

Patata Tropikala taldearen eskutik "Pirata Garrapataren abenturak" izenburuko kontakizuna hartuko du umeen liburutegiak bihar, 18:00etatik aurrera. Zapatuko Ipuina egitasmoaren barruan eskainiko duten saioa 3 urtetik gorako umeentzat pentsatutakoa da, magia, antzerkia eta txo-xongiloak tartekatzen ditu eta, betiko moduan, sarrera librea izango da.



Guraso Berbalagunak Tren Museoan

Aurreko zapatuan, ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen Gurasoak Berbetan egitasmoaren barruan, talde politak egin zuen bat Azpeitiko Tren Museoan egindako bisitarekin. Guraso berbalagunek, seme-alabek lagunduta, goizean goiz ekin zioten egunari. 11:00etan museoa bisitatu, eta ondoren, 12:00etan lurruneke trenean 40 minutuko bueltaxoa eman zuten. Behin bisita amaituta, hala nahi izan zutenek, Añota sagardotegian elkarrekin bazkaltzeko aukera izan zuten.




Gaztelekua

Indianokua gaztelekuak bost urte betetzen ditu eta, gaur arratsaldean hori ospatuko dute. Batzen den jendearen arabera, gerturaten direnekin musika pixka bat ipini eta merendola egiteko asmoa dute arduradunek. Bihar, berriz, eguraldiak laguntzen badu kanpo jolasak egingo dituzte eta domekan gaztelekua itxita egongo da. Bestalde, perkusio tailerrarako ez da talderik sortu eta bertan behera geratu da.



Azterketarako ordutegi berezia

Juan San Martin liburutegiak maiatzaren 9tik ekainaren 30era bitartean ordutegi berezian zabalduko ditu ateak, azterketak prestatu nahi dituzten ikasleek horretarako aukera izateko: astelehenetik barixakura 09:00etan zabaldu eta 20:30ean itxiko dute (ekainaren 24 eta 25ean, San Juan jaiak direla eta, itxita egongo da).



Bisita gidatua

Untzagako jubilatuek udaletxera bisita gidatua egingo du datorren asteko eguaztenean, 12:15ean, "Errepublikak eta emakumeak" argazkiari buruzko azalpenak bertatik bertara jasotzeko. Intersa dutenei egun eta ordu horretan udaletxeko arkupeetara joateko dei egiten zaie.

Bertso afariarekin hasiko dira Santa Kurutz jaiak

Maiatzak 3a Santa Kurutz eguna dela eta, horren inguruko jaiak ospatzeko egitaraua prestatu dute auzokoek eta udalak. Programari asteburu honetan ekingo diote: bihar bertso afaria egingo da Ixua jatetxean, 21:00etatik aurrera, Julio Soto eta Iker Zubeldia bertsoariarekin (txartelak Ixuan salgai, 28 eurotan). Martitzenean, Santa Kurutz egunean, 17:30etako kanpai-errepika eta gero, meza egingo da ermitan, Gorosta eta Mandiola auzoetan hildakoen alde.

Jaiak hurrengo asteburuan jarraituko dute: maiatzaren 7an, 10:30ean kanpai-errepika egingo da; 11:00etan meza, Santa Kurutzeko ermitan eta, ondoren, hamaiketako; 12:00etan Eibarko trikitilari gazteek saioa hasiko dute; 12:30ean haurrentzako jolasak hasiko dira; 13:00ean, herri jolasak,

auzoko gazteen eskutik; eta 14:30ean bazkaria, Ixua jatetxean eta, ondoren, erromeria (bazkariko txartelak Ixua jatetxean salgai). Eta hurrengo egunean goizetik hasiko dira ekitaldiak: 10:00etan Santa Kurutzera igoera egingo da, Urkizuko iturritik abiatuta; 10:30ean kanpai-errepika; 11:00etan meza nagusia ospatuko da Santa Kurutzeko ermitan, Eibarko Kantuzaleak abesbatzaren parte-hartzearekin eta, ondoren, piskolabisa, Mugi Panderoa erromeria taldeak girotua. Auzoko Feria ere egingo dute, animalien erakusketarekin; 12:00etan hasiko da soka dantza, Kezka dantza taldearen eta Usartza txistulari bandaren eskutik; 12:30ean haurrentzako jolasak hasiko dira eta 13:00ean txapel jaurtiketa, nahi duten guztientzat; 14:30ean kanpai hotsez amaituko dira aurtengo jaiak.

Santa Kurutzeko Jaiak 2016 Eibarren

BERTSO AFARIA

Ixua jatetxean

apirilak 30, zapatua 21:00etan

Julio Soto eta Iker Zubeldia
bertsoariarekin



Julio Soto Iker Zubeldia

Santa Kurutzeko Jaiak Eibarren  Prezioa: 28€ Txartelak: Ixua jatetxean

Soto eta Zubeldia iragartzen duen kartela.

Debarreneneko Orkestra, gaur Coliseoan

Jose Miguel Laskurainen eskutik sortu berri den Debarreneneko Orkestra Sinfonikoak aurkezpen-kontzertua emango du gaur, 20:30ean Coliseoan (10 euro). Adin tarte zabala hartzen duten 35 bat musikaririk osatutako taldeak bere burua ezagutzera emateko emaldia "Suite klasikoa" (Tomás Aragüés) eskainita hasiko du eta, jarraian, zineko musikak beteko du programa: "Gabriel's oboe", "Titanic", "Inno di Giove-Jupiter", "The Ludlows", "La lista de Schindler", "Lo imposible" eta "Vals N2". Proiektuaren sortzaile eta zuzendariak dienez, "musikari gehienak Debarrenenekoak dira, ikasketa maila desberdinekoak, batzuk profesionalak eta beste batzuk amateurrak... orkestra askotariko musikariz osatuta dago. Helburua musika eginez disfrutatzea da eta urtean bizpahiru kontzertu eskeintzea da asmoa".



Muñoaren libururako auzolana

Ibon Muñoaren hirugarren liburua, "Bidean gaude, aurrera goaz joan zirenekin" argitaratzeko eta gastuak murrizteko auzolanean arituko dira Irrintzi inprentakoekin. Horretarako jendearen laguntza beharko dutenez, animatzen direnei maiatzaren 7an Arrate Kultur Elkartera joateko dei egin nahi diete, goizeko 10:00etatik aurrera. Liburuaren aurkezpena, berriz, maiatzaren 18an, Ibonen urtebetetze egunean egingo dute, Beleko tabernan.




Benito Lertxundiren "Oroimenaren Oraina"

Datorren asteko barixakuan (maiatzak 6an) Benito Lertxundi Coliseoan izango da, 20:30etik aurrera kontzertua ematen (18 euro). Orioko kantariak, 50 urteko ibilbidea ospatzeko, Euskal Herrian zehar kontzertuak emateari ekin zion "Oroimenaren Oraina" izeneko diskoa ardatz zuen biran eta oraindik ere zuzenekoetan murgildurik jarraitzen du. Bere betiko estilolari jarraituta, emanaldian oraindik argia ikusi ez duten kantuak ere aurkeztuko ditu, "barne hausnarketak, Fernando Pessoa portugaldar idazlearen olerkiak edo-

ta Jorge Bucay argentinarraren olerkiren batekin konposatutakoak". Horiekin batera, jakina, betiko kanturik ezagunenek ere tokia izango dute. Kontzertuan ohiko musikariek lagunduko diote: Juantxo Zeberio (piano eta sintetizadorean), Amaiur Cajaraville (baxuan), David Gorospe (baterian), Angel Unzu (gitarra eta bouzoukiarekin), Gurutz Bikuña (gitarrekin), Kutxo Ocho de Eribe (arrabitarekin), Pello Ramirez (eskusoinu eta biolontxeloarekin), Intza Unanue (koroak egiten) eta Olatz Zugasti (harpa, teklatu eta ahotsarekin).

eguraldia (EUSKALMET.NET)



Rebuig-Beruna Soraluzen

Kontzertua emango dute Rebuig (Bartzelona) eta Beruna (Lekeitio) taldeek zapatu gauean, 22.30ean hasita Soraluzeko gaztetxean. Talde biak zuzenean ikusteko sarrerak 3 euro balio du.

BASERRI MUGIKORRA



Azoka eguna Elgoibarren

Hileko azken zapatuko feria egingo da bihar Elgoibarren, Udalak eta Debemenek antolatuta. Baserriarrek eta ekoizleek saltokiak jarriko dituzte Kalebarren plazan, 09:00etatik 14:00etara. Horrez gain, Kale Kantariak taldeak feria eguna girotuko du, 12:00etan Kalebarren plazatik abiatuko den kalejiran. Ordu eta toki berean zabalduko dute Baserri Mugikorra eta umeek baserriko bizimodua eta hainbat animala bertatik bertara ezagutzeko tartea izango dute.



Monologo saioa Bergaran

David Navarrok monologia egingo du Bergaran, Zabalotegi aretoan, bihar 20:00etatik aurrera. Saioa Alex Rabanalek aurkeztuko du eta sarrerak 8 eurotan egongo dira salgai.

hildakoak

- Margarita Luque Lopez. 90 urte. 2016-IV-11.
- Julio Cordon Rodriguez. 84 urte. 2016-IV-21.
- Carmen Zabaleta Ozamiz. 83 urte. 2016-IV-22.
- M^a de la Vega Alvarez Galarreta. 85 urte. 2016-IV-22.
- M^a Jesusa Amunategi Ikazuriaga. 81 urte. 2016-IV-25.
- Jesus Perez Porras. 73 urte. 2016-IV-26.
- Miren Atxa Etxeberria. 88 urte. 2016-IV-26.

jaiotakoak

- Libe Salaberria Lersundi. 2016-IV-19.
- Anas Boukadid. 2016-IV-19.
- Aitana Linares Silva. 2016-IV-19.
- Ander Linares Silva. 2016-IV-19.
- Ur Pugès Araolaza. 2016-IV-19.
- Noel Garcarena Feijoo. 2016-IV-21.
- Oihan Riaño Zabala. 2016-IV-21.
- Alain Montero Mujanovic. 2016-IV-21.
- Oxel Buendia De Pedro. 2016-IV-22.

farmaziak

- Barixakua 29
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Zapatua 30
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Domeka 1
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Astelehena 2
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
- Martitzena 3
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Eguaztena 4
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Eguena 5
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
- Barixakua 6
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)

GAUEZ BETI - 2016AN-
Iraundegi (Calbeton, 19)

SUDOKUA

7			5	3		2		
3	5				1		6	
				9		3		8
			6					
6	2						7	4
					5			
5		1		6				
	6		3				9	7
		2		1	4			6

4	2	1	9	8	3	7	6	5
3	7	6	4	2	5	9	1	8
5	9	8	1	6	7	2	3	4
1	3	7	8	4	2	5	9	6
9	6	2	5	3	1	4	8	7
8	4	5	7	9	6	3	2	1
7	5	3	2	1	8	6	4	9
6	1	4	3	7	9	8	5	2
2	8	9	6	5	4	1	7	3

AURREKOAREN
EMAITZA

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

Barixakua 29

GAZTELEKUA

16:30. Gaztelekuaren 5. urteurrena. Indianokuan.

FASHION FRYDAIS

18:00. Moda/edertasunari buruzko hitzaldia. El Corte Inglesean.

BISITA GIDATUA

19:00 eta 20:00. "Argazki baten istorioa", Nerea Alustiza historialariaren eskutik. Untzagan hasiko da (udaletzeko sarreran, argazkiaren aldamenean).

KONTZERTUA

20:30. Debabarreneko Orkestra Sinfonikoaren aurkezpen. Coliseoan.

Zapatua 30

II. ERREPUBLIKA

10:00. "II. Errepublikaren Eibar" ibilbide historikoa, Jesus Gutierrezekin. Untzagatik abiatuta.

BISITA GIDATUA

11:00, 12:00 eta 13:00. "Argazki baten istorioa", Nerea Alustiza historialariaren eskutik. Untzagan hasita.

Erakusketak

Apirilaren 30era arte:

- "Andrak eta errepublika" (*Juan San Martin liburutegian*)
- "ADECAP Elkarteak 25 urte" (*Armagintzaren Museoan*)
- Eibarko Artisten Elkartearen 50. urteurrena (*Portalean*)
- Arantza Alvarez margoak (*Untzagako Jubilatuen Etxea*)

Maiatzaren 1era arte:

- "1937ko Bonbardaketa Eibarren" (*Topalekuan*)

2016ko abendura arte:

- Jose Luis Apraizen arma-bilduma (*Armagintza Museoan*)

ARGAZKILARITZA MAIATZEAN

Maiatzaren 2tik 31ra arte:

- Argizaiola Saria. (*Klub Deportiboan*)
- Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldea (*Ambigu eta Portalea tabernetan*)
- Manuel Vilanova-ren "Faces of the world" (*El Corte Inglesean*)

Maiatzaren 6tik 29ra arte:

- Jose Manuel Lucena (*Topalekuan*)
- Agustín Sagastiren "Arquitectura y tiempo" (*Portalean*)
- Koldo Badilloren "Del caos al laberinto" (*Portalean*)
- Oskar Gaskon. Ohorezko Saria 2015eko I. Ojanguren Lehiaketan (*Portalean*)

Maiatzaren 6tik 31ra arte:

- Gipuzkoa Nazioarteko Saria (*Untzagako jubilatuen etxean*)

BERTSO BAZKARIA

14:00. Jokin Bergara eta Manu Goiogana. Gai-jartzailea: Maddi Alberdi. Legarre Gain elkartean.

GAZTELEKUA

20:30. "Kanpo-jolasak (eguraldiaren arabera). Indianokuan/Coliseoan.

ZAPATUKO IPUINA

18:00. "Pirata Garrapataren abenturak". Umeen liburutegian.

SANTA KURUTZ JAIK

21:00. Bertso afaria, Julio Soto eta Iker Zubeldia. Ixua jatetxean.

Domeka 1

MAIATZAREN LEHENA

12:00. LAB sindikatuak deituta, manifestazioa, Untzagatik hasita. Ekitaldi sindikala. Herri bazkaria. Untzagan.

Martitzena 3

EUSKARAREN MINTEGIA

09:00/14:30. Euskararen Transmisioari Buruzko VI. Mintegia. Portalean.

IKASTEN

16:00. Puntu-tailerra. **17:00.** Joskintza-tailerra. Portalean.

SANTA KURUTZ JAIK

17:30. Santa Kurutz Eguna ospatzeko kanpai-errepika.

18:00. Meza. Santa Kurutzeko ermitan.

GURASOAK MARTXAN

18:00. "Comportamientos adecuados en la infancia". Portalean.

GURE ESKU DAGO

19:00. Bilera irekia. Arrate Kultur Elkartean.

HARIXA EMOTEN

19:00. Literatur tertulia: "12etan bermuta" liburuaz, Jasone Osororekin. Portaleko ikastaro-gelan.

Eguaztena 4

ZIKLOMOTORREN ITA

09:00/14:00. Zezen Plazan.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizan.

DANBORRADA

19:00. Umeen entsegua. **20:00.** Helduen entsegua. Beistegi eraikinean (Bittor Sarasketa, 7).

IKUS-ENTZUNEZKOA

19:30. "Aste Santuko irteera Cuencako mendilerroa". Periko Iriondoren eskutik. Klub Deportiboan.

Eguena 5

BILERA

19:00. Kaleratzeak Stop Debabarrenaren bilera irekia. Portalean (3. solairuan).

KALEETAN KANTUZ

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizan.

ESKOLETAKO ANTZERKIA

20:30. "Objetos perdidos" antzezlan, Narruzko Zezen taldearen eskutik. Debabarreneko eskolarteko XXXII. antzerki jardunaldien barruan. Hezkuntza Esparruan.

Lehiaketak

Maiatzaren 3ra arte:

"Valenciaga Oroitzarrea" argazki-lehiaketa

Lanak aurkeztea: Eibarko Txirindulari Elkartean (Pagaegi, 3). Informazio gehiagorako: cce@clubciclistaeibarres.org

Maiatzaren 6ra arte:

- "Sanjuanak Eibarren" kartel-lehiaketa

- Alkohol larregi edatearen kontrako pegatina-lehiaketa

Informazioa eta lanak aurkeztea: Pegoran.


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, UDAI Mallagaray Ayerza, bixar urtetxua egingo dozu-eta. Muxu haundi bat Inhar, aitaxo eta amatxoren partez.



Zorionak, IMANOL!, bixar 11 urte beteko dozuz-eta. Besarkada eta patxo pillua etxekuen partez.



Zorionak, JULEN, bixar bost urte beteko dozuzelako. Patxo haundi bat danon partez. Aupa Eibar!!!



Zorionak, AINHIZE Egurrola Mugerza, astelehenian zortzi urte bete zenduaz-eta. Famelixa osuaren partez.




Zorionak, PAUL, aurreko domekan 10 urte egin zenduaz-eta. Zelako nagusixa! Milla muxu etxekuen partez.



Zorionak, amatxo BEATRIZ, martitzenian zure 50. urtebetetzia ospatu genduan-eta. ANE eta MIRENen partez.



Zorionak, MARKEL, gure mutil haundixa! Bihotz-bihotzez, zure famelixaren eta, batez be, ALAZNEn partez.



Zorionak, NARA, domekan zortzi urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat, Princes, zure guraso eta nebaren partez.



Zorionak, UNAX, maiatzaren 6xan 13 urte beteko dozuz-eta. Muxuak eta ondo pasa eguna, gurasuen eta arrebaren partez.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)


30ean: 19:45, 22:00

1ean: 20:00

2an: 20:30

"Resucitado"

Zuzendaria: Kevin Reynolds



(2 ARETOAN)

30ean: 17:00, 19:45, 22:00

1ean: 17:00, 20:00

2an: 20:30

"Julieta"

Zuzendaria: Pedro Almodóvar



(ANTZOKIAN)

30ean: 17:00⁽¹⁾, 19:45, 22:30

1ean: 17:00⁽¹⁾, 20:00

2an: 20:30

"Toro"

Zuzendaria: Kike Maillo




(ANTZOKIAN)

30ean: 17:00

1ean: 17:00

"El libro de la selva"

Zuzendaria: Jon Favreau



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK** honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Etxebizitza salgai Santo Domingo de la Calzadan. Ondo kokatua eta argitsua. Konpontzeke. Prezio onean. Tel. 699-960037.
- Pisua salgai San Agustín zeharbidean. 3 logela, egongela handia, sukaldea eta bi komun. Ganbararekin. Berrizteke. Tel. 679-230519. Whatsapp bidali.
- Pisua salgai Debako erdigunean. Bi kaletara ematen du. 3 logela, egongela eguzkitsua, jangela handia, sukalde berria, 2 komun, trastero eta terraza txikia. Leiho berriak kristal bikoitzarekin. Tel. 656-737198 eta 635-751970.

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibar erdialdean. Tel. 632-682005.
- Neska batek logela hartuko luke alokairuan. Tel. 943-203184.
- Pisua (edo logela) hartuko nuke alokairuan Eibarren. Lagun bakarrentzako. Tel. 622-315458. Abraham.
- Udarako etxebizitza alokagai Deban. 2 logela. Erdigunean kokatuta. Tel. 607-180791.

2. Motorra

2.1. Salgai

- 2014ko azaroko Ford Kuga salgai. Diesel, 140cv, 2.TDCi Titanium. 4x2. 22.000 km. Berriberria. Tel. 637-340441.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Martxan dagoen ileapaindegia alokagai Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-376744.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, baita gauzez ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 628-318570.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa-lanak egiteko. Tel. 634-627696.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu, etxeko lanak egin eta pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu, kamarera jardun eta garbiketako egiteko. Tel. 666-380843.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaindu eta garbiketa-lanak egiteko. Tel. 660-184603.
- Neska eskaintzen da ileapaintzaile eta esteticien jarduteko etxetz-etxe. Tel. 662-423898.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa-lanak egiteko. Erreferentziak. Tel. 678-112785.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa-lanak egiteko. Tel. 631-466742.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa-lanak egiteko. Tel. 637-304817.
- Neska eskaintzen da taberman lan egiteko. Extra moduan edo lan berezietarako. Esperientzia. Oinarritzko euskara. Tel. 669-512815.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa-lanak egiteko. Tel. 631-995976.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa-lanak egiteko. Tel. 631-316113.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa-lanak egiteko. Orduka. Erreferentziak eta esperientzia. Tel. 672-442318.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa-lanak egiteko. Tel. 631-133431.
- Neska langilea eskaintzen da nagusiak zaindu (etxean edo ospitalean) eta garbiketako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-925362.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 606-017974.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldez garbiketa-lanak egin eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 632-682005.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 699-509130.
- Eibarko neska arduratsua eskaintzen da umeak zaindu eta enkarguak eta garbiketa-lanak egiteko. Goizez edo orduka. Tel. 658-845081.
- Magisteritza ikasten diharduen neska eibartarra eskaintzen da arratsaldez umeak zaintzeko. Tel. 606-187556.

- Emakume arduratsua eskaintzen da orduka garbiketa lanak egiteko. Tel. 688-872312.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketako egiteko. Tel. 680-808125.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-607193.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 632-337083.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin eta nagusiak zaintzeko. Tel. 631-434137.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-139915.
- Emakumea eskaintzen da etxea garbitu eta nagusiak zaintzeko. Tel. 608-376389.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 622-153750.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 655-094780.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketako egiteko. Berehala hasteko moduan. Tel. 628-738472.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Asteburuak barne. Tel. 642-267113.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 663-639241.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxea garbitzeko. Tel. 631-988471.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 616-833195.

4.2. Langile bila

- Neska euskalduna behar da astean zehar goizez umeak zaintzeko. Deitu arratsaldez. Tel. 637-012625.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- DBH, Baxilegoa eta Unibertsitate mailako Matematika etabar ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Goizez ere bai. Tel. 677-592509. Al-berto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Binilozko LP-ak eta diskoak erosten ditut. Tel. 688-624326.



Ignacio Zuloaga Institutua

EIBAR



Aurrematrikula maiatzaren 2tik 12ra

Batxilergoak: Arteak - Humanitateak eta Gizarte Zientziak - Zientziak eta Teknologia



Jardifeta 3 Eibar · Tel.:943208349 · Fax:943206048 · www.ignaciozuloaga.net · E-mail:012055aa@hezkuntza.net



LEA ARTIBAI **GUK BAI**

ATE IREKIAK LANBIDE HEZIKETA

MAIATZAREN 12AN, 15.00 ETATIK 19.00 ETARA

HEZKUNTZA ESKAINTZA:

ERDI MAILA

- Beroa sortzeko instalazioak (iturgintza, eguzki instalazioak, gasa)
- Mantenimendu elektromekanikoa

Sarbide proba goi mailarako

GOI MAILA

- Administrazioa eta finantzak
- Ekoizpen Prozesuak eta Kalitatea Elikagaien Industrian
- Automatizazioa eta robotika industriala
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
- Mekatronika industriala
- Web Aplikazioen Garapena

ARRATSALDEZ

- Efizientzia energetikoa eta eguzki energia termikoa




lea artibai
ikastetxea
Etorkizuna erakiz

Markina-Xemein · 94 616 90 02 · info@leartik.com · www.leartik.com

Maiatzaren 2tik 12ra

Batxilergorako Eskaintza 2016-2017

Zientziak eta Teknologia
Giza eta Gizarte Zientziak
Artezkoa



943 12 16 98
azitain@lasalle.es

Web: www.lasalleeibar.com
Twitter: @LaSalleEibar